



ttipi-ttapa



OSTATU ETA DENDA TTIKIEN BEHERAKADA

Azken 20-30 urteotan 190 ostatu, jatetxe eta denda inguru itxi dituzte eskualdean. / 8

UTZITAKO ARGAZKIA

Koteto Ezkurraren azken kartutxoa

28 urteko ibilbidearen ondotik, Doneztebeko erremontistak irailaren 29an jokatu du azken partida / 42

SINADURAK




ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ludoteka, udaleku eta udako jostaldiak han eta hemen neska-mutikoentzat



OSKAR TXOPERENA

Josetxo Arburua 40 urte bete dituen Biltoki Elkartearen lehen presidentea / 17



ARTXIBOKO ARGAZKIA

1753an Goizuetan idatzitako euskarazko sermoi bat aurkitu dute / 32



ZOKKETA / 52

BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
probextu aukerak!



BIANDITZ
NEKAZARIEN ETXEA

%5 DESKONTUA
pentsu
ekologikoetan

Zalain Ind. 5 | BERA
T. 600 97 73 39

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
ERROPE DENDA

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamisetan
%10 Inprimatu
lurretan
%5 Kopla, eskudomazioa eta
plastifikazioan 5etik gora
*Aurrekontutik kanpo

Eztegara, 26 esk. behea | BERA
T. 948 63 15 21

elika
Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behea | BERA
T. 948 63 12 83

INTZURI
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria kalea, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Feri Sani
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran
%10 DESKONTUA
tirolina eta
penduloetan

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

kattogorria

%10 DESKONTUA
lentzerian

Beheko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

LIRAIN
ESTETIKA ETA ONGIZATE ZENTROA

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50etik gora.
Promozioetan ezik

Iparralde, 1 | BERA
T. 948 62 57 17

LESAKAKO
UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

oreKa
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 87 81 77

Semper
arrazo eskola

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98

Semper
arrazo eskola

%10 DESKONTUA
matrikulan

LESAKA | 948 63 82 99

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1 | LESAKA
T. 948 63 54 58

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Urdu
Bera

%20 DESKONTUA
urteko abonuaren
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

ze la
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

ZU
loredenda
dekorazioa
osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30etik gorako
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Bigarren etxea

Gaur mendian ibili naiz eta behiak ikusi ditut susara, bat ia gainera etorri zait! Ardiak kaskamotz, putreak apal-apal hegaka, hagitz hurbil; ahuntz tikiak belar zaporetsuenak patxadaz aukeratu eta ñam-ñam gozaten, txori arbolaigotzaileak, sugandilak, kolore biziko tximeletak, loreak... Aspaldiko partez eguzkia atera da eta natura ere kontent dago. Oinutsik

ibili naiz belarrean, zuhaitza besarkatu dut, bere kontra egon naiz jarrita. Hazia dago belarra, egun pilatako euria edan du. Zenbat gauza dagoen, begiratu gero! Mendia

bigarren etxe sentitzen dut, babesleku. 'Txori eta loreei buruz idaztea' esaldia erabiltzen da deus ez erratea delakoan. Baina gehiago idatzi beharko genuke horietaz, gehiago begiratu, egon naturan. Denbora ere bere onera etortzen da bertan; ez da hain agudo pasatzen. Ohartu ala ez, natura gara. Orduan, zergatik kentzen zaio garrantzia? Zer da garrantzitsuagoa?

«OHARTU ALA EZ,
NATURA GARA.
ZERGATIK KENTZEN
ZAI O GARRANTZIA?»

EZPALA

AITOR AROTZENA

Esaera zaharrak, uda berria

Maiatzaren 40a ongi bete ondotik hasiak gara *sayoak*, jertseak, zirak, aterkiak eta neguko galtzerdiak kendu eta armairu txokoan herdoildutako galtza-motz, pirata eta sandaliak aieratzen eta kadukatutako eguzki-krema ematen. Uda hasi berri zaigu, espantorik gabe. Ez gaitezen orain hasi eguzkiaren onena itzala dela erraten. Oraindik ez, mesedez.

NABARMENTZEKOAK



**GLORIA
IRURTIA**
EHOZIRI IRAKASLE OHIA



**DANI
MARTIRENA**
IDAZLE ETA KAZETARIA

Aurten hogeit urte bete ditu Linu Putzu Leitzako ehaziri elkarteak eta ekainaren 18an ehaziri lanetan irakasle izan zuten Gloria Irurtia omendu zuten. Linu Putzu taldean sei bat lagun biltzen dira ostiral arratsaldetan.

Legasako Dani Martirena Indart eta Iruñeko Ana Ibañez Elosuaren *Cosimoren katiuskak* albumak irabazi du aurtengo Etxepare Saria. 5.000 euroko saria izanen dute eta saritutako lana Pamielak argitaratuko du.

ATZERA BEGIRA



2008-07-10 · TTAPI-TTAPA · 474 zk.

Beñat Txoperena txirrindularitzan

14 urte arte pilotan aritu ondotik, pilota bizikletarekin ordezkatu zuen Beñat Txoperena igantziarrak eta ederki hasi zuen txirrindularitzako ibilbidea. 16 urterekin mendi bizikletan Nafarroako txapeldun izan zen junior mailan eta gero errepidean hasi zen: «errepidekoa gehiago gustatzen zait eta horretan zentratuko naiz», adierazi zion TTAPI-TTAPAri duela hamar urte egindako elkarrizketan. Are gehiago, errepidean ez zen nolanahi hasi Gipuzkoako Itzulia irabazi baitzuen. Lau eguneko lehenbiziko lasterketa izan zen beretzat eta ezuste haundia eman zuen: «ez nuen uste maila horretan ibiltzeko gai izanen nintzenik. Parte hartu dudana lehen itzulia irabaztea ezuste haundia eta pozgarria izan da».

ttapi-ttapa

erran.
Mendialdeko Albisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttapi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Larraide, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

**Nafarroako
Gobernua**



**Gobierno
de Navarra**





KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Besta

Ate joka ditugu bertze urte batez sanferminak. Eta udarekin batera, baita eskualdeko bertze herrietako bestak ere. Baditugu hilabete batzuk horiek antolatzen: egitarauak ixten, karpak eskatzen, txandetarako jendea lotzen... eta eguna ailegatzen denean gustura aterako gara zuriz jantzita eta blusa gerrian, aste eta egun ederrak pasatzera, janean, edanean eta dantzan, lagunartean.

Aldarrikapenik ere ez da faltako. Besta bai, borroka ere bai leloari segiz, hainbertze jende biltzen dituzten bestak probexten baititugu maiz protestarako ere: presoan aldeko kalejira, independentziaren aldeko gazteen manifestaldia... Pankartaren giblean egiten direnak ez dira borroka bakarrak, halere. Borrokatzea baita, bertzeak bertze, txosnetan baso berrerabilgarriak erabiltzea. Anitzek gogoan izanen duzue horretan hasi aitzinetik goizero nola ernatzen zen herria plastikozko kapa batekin lurrean. Borrokatzea da, era berean, musika euskalduna eta ez-komertziala paratzea

**«EZINBERTZEKOAK
DIRA BESTETAN
LANTZEN DITUGUN
BORROKA TXIKIAK»**

bozgorailuetatik, eta horrekin egitea dantza, ostatu gehienek Espainiatik edota AEBetatik heldu diren melodiak -eta anitz matxistak- paratzen dizkigutenean. Eta borrokatzea da bestetan areagotu baino egiten ez

diren eraso sexisten aurkako protokoloak lantzea, eta erasoren bat jasan dutenak artatzeko puntu bat paratzea herrian.

Huskeria irudituko zaizkie batzuei, baina ezinbertzekoak dira bestetan lantzen ditugun borroka txiki guztiok. Besta ez baita gizartetik aparte eta modu isolatuan gertatzen den fenomeno bat. Alderantziz: Margaret Bullen antropologoak alardeei buruz egindako lan mardulean agerian paratzen du bestek gizartearen ordena erreproduzitzen dutela, eta bestetan agertzen direla gizartearen ditugun rolak, jarrerak eta botere harremanak; anitzetan indartuak, gainera. Errate baterako: nork garbitzen dizkigu arropa zuriak eta nork prestatzen digu janaria gu tanborradan edo ostatuz ostatu poteoan gauden bitartean? Nork hartzen du espazio publikoa bestetako mementorik garrantzitsuenetan, eta nork egiten dio txalo? Rol, jarrera eta botere-harreman horiek bestetan aldatzen saiatzeak garrantzia berezia du, beraz; ondotik egunerokotasunean ere eragiteko. Horregatik egiten dugu gure txikitasunetik besta euskaldun, feminista eta herritarren alde. Probatu nahi duenak, badaki non barrena ibiliko garen. Ongi pasa bestak!



MIREN OLAETXEA INDABURU BIDAZI ELKARTEA

**Elikadura eta energia
burujabetzarentzat badaude
aukerak**

Aunitz solastu da azken urte hauetan burujabetzari buruz eta nahiz nazio, herrialde edo herri bateko lurraldea eta herritarrek gobernatzeko ahalmena, eskumena eta eskubidea bezala deskribatzen den orokorrean, gaurko honetan bi burujabetza konkretuei buruz hitz batzuk erranen ditugu.

Lehendabizikoa, elikadura burujabetza da.

Hau, herriek, komunitateek eta herrialdeek beren nekazaritza, labore, arrantza, janari eta lurralde politika propioak definitzeko eskubide bezala definitzen da, nork bere ezaugarrien arabera modu ekologikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean egokiak diren jarduerak erabiliz.

Hau da, gure inguruan ditugun baliabideak ahalik eta modu egokienean erabiliz (natura eta gizarte errespetatuz) lortzen ahal den subiranotasuna. Kanpotik heldu diren

'erasoei' aurre egiteko dugu erreminta.

**«BURUJABETZA
EGIA BILAKATZEKO
PROIEKTUAK GERO
ETA GEHIAGO DIRA»**

Eta gaur egun, aukera hau errealtate bat da gure eskualdean, Bidazi kontsumo elkartearen bidez, batik bat.

Bigarrena, energia burujabetza da.

Energia, batik bat

elektrikoa, egungo gizarteetako oinarritzko ondasun bilakatu da, ura edo elikagaiak bezain beharrezkoa. Herritarrek oinarritzko ondasun honekiko kontrola berreskuratzea da energia burujabetza eta honen garrantziaz jabetzea, energiaren kontsumo arduratsu eta iraunkorra eginez.

Subiranotasun energetikoa berreskuratu nahi badugu, merkatu energetikoa kontrolpean duten enpresa haundiak baztertzen joatea bertzerik ez dugu, bertze modelo energetiko bat bultzatzen duten mugimenduen alde.

Eta arlo honetan ere, Goiener kooperatiba energetikoa aukera bezala azaltzen zaigu.

Eskualdean presentzia duten bi proiektu hauek gainera, lokal berriak estreinatu dituzte:

Bidazik, San Esteban karrika 11n du bere azoka berria, Beran eta Goienerrek, Nafarroan bere lehenengo bulegoa ireki du, Iruñean, Kale Berrian 111. zenbakian.

Bi arlo horietan, gure eskura ditugun baliabideak erabiliz, poliki-poliki pausoak ematea funtsezkoa da, bai gizarte osasuntsuago bat lortzeko, baita gure ingurugiroa zaintzeko ere.

Gizarte lo dagoela diote batzuek, baina burujabetza errealtate bilakatzeko lan egiten duten proiektuak geroz eta gehiago dira, errealtate bat dira eta gure inguruan daude.

Ez dezatela erran!

11 GALDERA LABUR

MARIA BARRENETXE AZPILKUETAKO GAZTEA

«Bestak bukatuta Baztandarrenen esperoan egoten naiz»

Zein zaletasun dituzu?

Aunitz ditut, baina batzuk aipatzekotan lagunekin eta familiarekin egotea, mendira joatea eta musika aditzea gustatzen zait.

Bestazalea al zara?

Kimika ikasten ari naiz eta, unibertsitateko lanak eta azterketak tarteko, aunitzetan lagunekin egoteko denborarik ez dudanez, noizbehinka bestaz ateratzea beraiekin egon eta ongi pasatzeko aitzakia ona da. Ateratzen naizenetan ahal dudan hoberen pasatzen saiatzen naiz.

Herrikoak berehala dituzue...

Bai... Herri ttikia izaki, Azpilketan denak elkartzeko eta betiko lagunekin egoteko aprobetxatuko dut.

Gehien gustatzen zaizun eguna?

Gazte Eguna gustatzen zait gehien, bai bazkarian, bai ondotik egiten ditugun jokoetan ere, giro ederra izaten dugu. Aitzinetik, ordea, bezperako afariaz gozatu behar dugu!

Eguna edo gaua nahiago izaten duzu?

Ez dute zerikusirik, biek dituzte gustuko ditugan gauzak... Ezingo nuke bat aukeratu. Deskantsatzeko eta indarberritzeko tarte bat hartuz gero, momentu guztiek dute beraien berezitasuna.

Zer falta zaie Azpilketako beste?

Deus, niri diren bezala gustatzen zaizkit... Baina zerbait erratekotan jende gehiago etortzea...



Azpilketakoen ondotik...

Urteko bertze ekitaldi berezietako bat dator, Baztandarren Biltzarra. Aurten uztailaren 22an izanen da, eta egun horretan ez dut hutsik eginen.

Asteburuko planik hobereena?

Neguko egun euritsuetan nire ahizpekin kartetan jostatzea gustatzen zait; udan, berriz, mendira edo hondartzara joatea.

Inguruko txokorik politena?

Ez dakit politena den, baina Azpilketako mendietatik ikusten diren Baztango bistak ederrak dira.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Bizitzak dakarren hori bizi-tzeak, deus gehiago. Gauza berezietan egunerokotasunak eskaintzen duen lasaitasunak gozatzeak.

Amets bat?

Ahal dudan leku gehienetara bidaiatzea, tokiak eta jendea ezagutzeko aukera izateko.

GOITI ETA BEHEITI



UTZITAKO ARGAZKIA

Turismo bulegoan orduraz kanpo



Egin duenak jakinen du zergatik baina Leitzako turismo gunea sabotatu dute. Euskarazko materiala lapurru eta *Viva España* margoketak egin dituzte.

GOITI ETA BEHEITI



UTZITAKO ARGAZKIA

Telefono dei bat egin faltan...



Batzuek ez dute ikasi oraindik... Traste handiak botatzeko aski da telefonoz dei bat egitea eta doan biltzen dute... Ez dadila Berako irudi hau errepikatu.

IRAKURLEAK MINTZO

Aurtengoa, pozoinik gabeko uzta**MAITANE MARITORENA AZKARATE**

PLAZARA DANTZARAREN IZENEAN

Aurtengo herriko besten denboraldi honetan, berriz ere zoriondu nahi ditugu baztandarrak. Pozten gara orain artioko bestetako plazak mutildantzariz beteta ikusteaz, espero dugu bertze gainerako herrietan ere, bertze hainbertze ikustea. Gauzak aldatzen ari diren seinale. Orain dela gutti artio hutsak edo mutildantzari baztertzaileez beteak zeuden plazak, gaur egun parekideak eta herritar guztiei irekiak dira.

Aldaketak hala ere, ez dira beti norabide zuzenean egiten. Atzo emakumeen parte-hartzea galarazi nahi zutenak ez omen daude emakumeak dantzatzearen kontra, beren espazioa izatearen alde baizik (erran nahi, baztertzeko espazio bat izatearen alde). Emakumeak guttietsi eta bigarren mailako herritar gisa tratatu nahi dituzten horien diskurtsoa eta formak aldatu dira, baina erasoek jarraitzen dute, eta beraz, gure borrokak ere bai.

Matxismoak aurpegi eta neurri desberdinak izanagatik, beti da kaltegarria. Herriko plazetan emakumeak baztertzen dituztenek, emakumeek dantzatzen dutelako dantzatzeari uko egiten diotenek, dantza antolatzeari utzi diotenek, elizaren babesarekin eremu pribatuetan gizonen (zakildunen) nagusitasunaren alardea egiten dutenek, hauek denak txalotzera joaten direnek, edota ongietorria ematen dieten herriko ordezkariak, guzi-guziek emakumeak erasotzen dituzte, umilatuz eta guttietsiz.

'Manada' deitu zaie Iruñeko sanferminetako bortxatzaileei, taldean erasotu dutelako. Gure herrietan ere badaude taldean erasotzen dutenak. Hauek guztiak egunero emakumeen kontra ereindako mespretxua, heldu

diren belaunaldietako matxista eta 'manaden' uzta izanen dira. Erasoak beti dira larriak, baina larriagoak dira oraindik modu kolektiboan egiten direlarik, nabarmen gelditzen baita zein errotuta dauden inpunitatea, eta zapalkuntza.

Mugimendu feministari esker Euskal Herrian zein munduan, hainbat aurrerapauso eman dira arlo honetan, eta baztandarrak ere horretan ari gara. Eman diren pausoak txalogarriak badira ere, bide luzea dugu oraino egiteko. Segi dezagun bada eraso guztiak salatzen eta bazterketarik gabeko plazak betetzen. Aurtengoa, pozoinik gabeko uzta bildu dezagun!

Beltran, Txibite eta Espartza**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Badakigu zuek, Ana Beltran, Maria Txibite eta Javier Espartza, segur aski, ez duzuela izanen Pedro Miguel Etxenikeren antzeko adimen koefizientea, ez da erraza, holakorik ez du edonork izaten, baina, hala eta guztiz ere, jakiteko Ipar Euskal Herrian eta Hegoaldean zein diren inposatzen diren hizkuntzak, ez da asko behar, hau da, ez da behar oso adimen koefiziente handirik, alegia, Iparraldean pertsona guztiak ikasi behar izaten dutela frantsesa nahi eta nahi ez, behartuta daudelako, hots, Frantziako konstituzioak inposatzen dielako bere ondorio guztiekin, eta, berdin-berdin

gertatzen da Hegoaldean espainierarekin, hau da, denok ikasi behar izaten dugu Cervantesen hizkuntza nahitaez, Espainiako konstituzioak horrela inposatzen digulako, guri ere bere ondorio guztiekin. Estatu hauetako gainerako hizkuntzak ez gaude behartuta ikastera eta jakitera, eta horren adibiderik hoberena zuek zarete, Ana Beltran, Maria Txibite eta Javier Espartza, Nafarroan bizi zarete eta inork ez zaituzte behartu euskara ikastera, inork ez dizue inposatu, begira, hor zabiltzate egunero Nafarroako kaleetan eta Parlamentuan euskararik jakin gabe eta Nafarroako Gobernuak oraindik ez zaituzte espetxeratu, ez eta isunik jarri ere, orduan, zein inposizioz aritzen zarete zuek egunero-egunero halako gezurrak esaten dituzuenen? Bai, gezurrak, bai!, zeren eta gezurra baita esatea pentsatzen den kontrakoa, eta, nahiz eta zuen adimen koefizientea beharbada ez den izanen oso-oso distiratsua, ziur dakigu denok horrenbeste badakizuela; beraz, hainbeste astakeria, maltzurkeria eta aldrebeskeria esateko behar dena horixe da, alegia, asmo txarra, gogo txarra eta gorrotoa Nafarroako euskaldunon aurka.

Euskara, ez, seguru asko ez duzue asko gorrotatuko, ez duzuelako ongi ezagutzen, eta, jakina da, zerbait edo norbait maitatzeko edo gorrotatzeko, lehendabizi ezagutzea ezinbestekoa dela. Euskara ikasi eta hobeki ezagutuko bazenute, baharbada maitatuko zenukete, bestela, ez, ezinezkoa da, ezin duzue inor engainatu.

Hortaz, ba, Beltran, Txibite eta Espartza, aski da, ez esan hainbeste gezur!, zuek zeuok ere ezin baitituzue sinistu. Adimenez motzak izan ahalko zarete, baina hainbeste ez!

Ana Beltran, Maria Txibite eta Javier Espartza, ez jarraitu gezurretan, Jesu Kristo berbera aspertzen baituzue eta belarria ikusten zaizue!

IRAKURLEAK MINTZO


Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.




Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



HEMEROTEKA



«Lehen, erretiroaren ideia burutik pasatzen zitzaidanean, korapilo bat egiten zitzaidan urdailean. Urteekin, baina, korapilo hori lasaituz joan da, eta, orain, askatu egin da. Apaizek ustez jasotzen duten dei horietako bat bezalakoa izan da. Garbi ikusi nuen unea hau zela(...)»

KOTETO EZKURRA ERREMONTISTA
BERRIA. 2018.06.12



«Ez dut kontraturik sinatu, baina berriz [erremontean] jokatzeari gustatuko litzaidake (...) Frontoian berriz agertzeari buruz aitzinerago solastatuko gara, ongi nagoenean, baina oraindik ez dut nire burua hori ikusten (...) Fisikoki erremontea utzi nuenean baino hobeki nago».

GORKA URTASUN ERREMONTISTA
D. NOTICIAS. 2018.06.16

ITURRI ONETIK



Nafarroako tokiko administrazioaren mapa berria onartzen dutenean, 12 eskualdetan banatua geldituko da Nafarroa. TTIPI-TTAPAREN eremuaren kasuan, Bidasoa eskualdeak hartuko ditu Baztan, Bortziriak, Malerreka, Bertizarana eta Urdazubi-Zugarramurdi. Bertzalde, Arano, Goizueita, Areso eta Leitza Larraun-Leitzalde eskualdearen barne izanen dira. 2019ko irailerako aurreikusia dute lege-proiektua.

BOTA BERTSOA

JOANES ILLARREGI MARZOL
LEITZAKO BERTSOLARIA



Denbora

Doinua: Gai horrek badu mamia

*Beti gabiltz erlojuan
Ordua begiratzen
Leku denetan berandu,
Ez gara ailegatzen
Ikasketetan, lanean
Ordu ugari sartzen
Agobioz nekatuta
Ta inon ez gozatzen
Beti gabiltza denbora
Alper-alperrik galtzen
Ta gure buruarentzat ez dugu inoiz hartzen*

*Agenda goraino bete
Zeregin barra-barra
Erlojuaren tik-taka
Izaten da azkarra
Gure gustuko gauzeri
Sarri emanez bizkarra
Baina justu horietan
Da gozatu beharra
Ez dakigu nolakoa
Izango zen biharra
Bizitzan une bakoitza
Delako bat, bakarra*

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

logurak
www.logurak.com

gaueko konfort-kuxina

Centro Prim regina tolosaechebare



Berako Etxeberria ostatua 1992an. UTZITAKO ARGAZKIA

190 bat denda eta ostatu itxi dituzte

Eskualdeko herrietako denda eta ostatu edo tabernen bilakaera aztertu du TTIPI-TTAPAK. Horren arabera, gutti goiti-beheiti azken 20-30 urteotan, 577tik 389ra jautsi da ostatu, jatetxe eta denden kopurua. Herri batzuk, gainera, halako zerbitzurik gabe gelditu dira.

N. BAZTERRIKA-G. PIKABEA

Datuak dira lekuko. Ez da bera ostalaritzako negozioen eta komertzioen atzoko eta gaurko egoera eta itxura guztien arabera, berdintsu segituko du hemendik aitzinera, urtetik urtera beheiti eginez.

Garaiak ederki aldatu dira. Denbora batean, herri ttikienetan ere dendak eta ostatu edota tabernak izaten ziren, baita TTIPI-TTAPAREN eremuko 43 herrietan ere, ttiki zein haundi. Kasu aunitzetan, denda eta ostatu ziren aldi berean, eta denetarik izaten zuten saltzeko: izan iltze edo izan jantzi, izan sagar edo izan oinetako, izan ardo edo izan pentsu... Nor ez da oroitu orduko *ultramarinos* haiez? Horietako batzuek bertzelako zerbitzuak ere eskaintzen zituzten, gaur egungo gizarte

pentseazina den telefono zerbitzua, adibidez. Orain, ia ez dago halako negozioirik, baina ez dira horiek bakarrik desagertu; hondarreko urteotan ateak itxi dituzten denda eta ostatu zerrenda adierazgarria da. Arrazoiak ugariak izan daitezke: herritarrek gero eta gehiago erosten dutelako saltoki haundietan, Interneten erosteko ohitura areagotu egin delako, erretiroa hartu eta erreleboa hartzeko inor aurkitu ez dutelako... Horrek karrikako giroan eta mugimenduan ere eragina izan duela

**ORAIN 25 BAT URTE
HERRI GUZTIAN
BAZIREN DENDA
ETA OSTATUAK**

diote aunitzek, izan ere, denda edo ostatu soiletik haratago, herritarrek biltzeko gune izan dira urte aunitzez eta oraindik ere hala dira.

Dendatik kooperatibara eta ostatutik elkartera



TTIPI-TTAPAK hartzen duen Hegoaldeko eremuan, duela 20-30 bat urte baino 188 denda edota jatetxe guttiago daude gaur egun; 577 inguru ziren lehen eta 389 bat dira orain. Herri guztietan baziren dendak eta ostatuak, edo aldi berean bietatik zirenak. Orain, ordea,

**ESKUALDEKO ZAZPI
HERRITAN EZ DAGO
EZ DENDA ETA EZ
OSTATURIK ERE**

deus ez duten herriak gero eta gehiago dira. Eratsunen, Donamarian, Oieregin, Zigan, Anizen, Berroetan eta Azpilkuetan, erraterako, ez dute ez ostatu ezta dendarik ere. Elgorriagan, Ezkurran, Oizen, Aranon, Gartzainen, Lekarozen eta Amaiurren ostatua bai, baina ez dute dendarik. Ostaturik eta dendarik ezari erantzunez, bertzelako aterabideak bilatu behar izan dituzte herri ttikietan eta herritar multzo bat bilduz kooperatibak edo ostatu-jatetxe bezala ere funtzionatzen duten elkarateak sortu dituzte. Horietako bat da berriki Gartzainen sortu duten Ezkaldo elkartea.

Datu adierazgarriak

Beherako joera horri erreparaturaz, herri batzuetako datuak adierazgarriak dira: Leitzan, adibidez, azken 20-30 urteotan 16 ostatu-jatetxe eta denda itxi dituzte; Beintza-Labaien zortzi denda eta ostatu izate-tik, laster ostatu bakarra izatera pasako dira; Oronoz-Mugairin 11 ostatu-jatetxe eta denda ziren lehen, eta orain bi dituzte; Iruritan 17tik laura jautsi da; Almandozen zazpitik batera. Goizuetan 25 ziren lehen eta 11 dira orain. Datuak gutti goiti-beheitikoak dira.



BERTIZARANA

	ORAIN 20-25 URTE	GAUR EGUN
Legasa	4	2
Narbarte	3	2
Oieregi	1	0




BORTZIRIAK


	ORAIN 20-25 URTE	GAUR EGUN
Arantza	13	6
Bera	109	81
Etxalar	10	7
Igantzi	8	2
Lesaka	46	36

BAZTAN

	ORAIN 20-25 URTE	GAUR EGUN
Almandoz	7	1
Amaiur	3	2
Aniz	1	0
Arizkun	7	6
Arraioz	1	1
Azpilkueta	2	0
Berroeta	2	0
Elbete	1	1
Elizondo	81	64
Erratzu	8	8
Gartzain	2	1
Irurita	17	4
Lekaroz	2	1
Oronoz-Mugairi	11	2
Ziga	2	0




MALERREKA




LEITZALDEA

	ORAIN 20-25 URTE	GAUR EGUN
Arano	3	1
Areso	2	1
Goizueta	25	11
Leitza	65	49



URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

	ORAIN 20-25 URTE	GAUR EGUN
Urdazubi	24	21
Zugarramurdi	6	7





Mari Karmen Azpirozek urte askoz taberna izan zuen Goizuetan.

«Herri ttikiak ahitzen ari dira»

MARI KARMEN AZPIROZ PIKABEA GOIZUETAKO TABERNARI OHIA

Goizuetan bizi bada ere, Oiartzunen, edo berak «harro» dioen bezala, «Aiako Harrien magalean» sortua da Mari Karmen Azpiroz. Ez zen geldirik egoteko jaio eta Goizuetako Goiz Argi tabernan 35 bat urte pasatu zituen lanean. Hori baino lehenagotik, senarraren lana tarteko, Goizuetatik Lesakara joan zen bizitzera familiarekin, baina Goizuetara jo zuten berriz. Orduantxe, 1978an, ireki zuen bere negozioa: «bajera batean jolas-areto bat jarri nuen». Goizuetan, ordea, «Mari Karmen alkohola ematen hasi zela» zabaltzen hasi zenean, bere ama zenaren «zein dun hire kontrarioa? Hire ofizioa» esanari helduaz, «Iruñera joan eta taberna irekitzeko baimena lortu nuen». Jolas-aretoa itxi eta tabernarekin aurrera egin zuen. Halaxe hasi zuen Mari Karmenek tabernako ibilbide luzea.

Ez zortzi orduko lanaldirik, ezta oporrik ere. Azpirozek egunero 07:00etarako irekitzen zuen taberna, eta «egunean 16 ordu egiten nituen lan», 2012an belauneko arazoak tarteko, taberna itxi zuen arte. Lana gogotik egitea tokatu zitzaion, «ez nuen sekula oporrik hartu», eta gainera, negozioa bakarrik eraman zuen. Ez zuen lan faltarik izan eta hortaz, «lanik ez dagoela aditzean, haserretu egiten naiz. Lana badago, gogoia falta da». Gustuko tokian aldaparik ez dagoela diotenez, akaso hori izan zen bere sekretua: «gustatu egiten zitzaidan. Gaur egun, taberna itxita bada go ere, lagunartean eta familian hemen biltzen gara».

Bestalde, berak taberna izan zuen garaitik Goizueta ederki aldatu dela ere adierazi digu: «denbora hartan, Goizuetan, 13 taberna ziren eta gaur egun hiru dira. Herria tristeago dago. Herri ttikiak ahitzen ari dira».

Ereindako hazia bilduz

Barraren atzean «istorio asko» ikusi eta ikasi zituen eta guztia gainera gainetik «oroitzapen onak» ditu: «ez nuen sekula arazorik izan. Gaupasa egin eta igual mozkortuta etorriko ziren, eta nik astindu bat emanez musu emanen nien. Gure ama zenak esaten zuen haziak erein egin behar direla biltzeko eta bezeroak ongi tratatuz gero, beraiek ere ongi tratatuko zaituzte».



Mertxe Aizpuruk denda eta ostalua izan zituen bizibide.

«Garai zailak bizitu genituen»

MERTXE AIZPURU GOIETXE ZIGAKO DENDARI IZANA

Gurasoen ogibidea bere eginik, Zigako Etxezurian dendaria eta zerbitzaria izan da Mertxe Aizpuru. «Ttikitatik, anai-arrebekin batera» hasi zen lanean eta 2011n «ez zela nahikoa saltzen eta bererik ematen ez zuela ikusita» ixteko erabakia hartu zuen: «denda haundiak irekitzen hasi zirenetik itxi genuen arte urte zailak izan ziren, lan handia egin behar izaten genuen eta egunero-egunero irekitzea nekagarria zen». Gurasoek hasiera hartan eta berak urte aunitzez «famiaren laguntzaz» segida emateko egindako ahaleginak tarteko, ixtea «emozionalki gogorra» izan zen Aizpurretzat: «guztira 75 urtetako, hau da, familia bateko bi belaunaldik izandako bizipenak gordetzen ziren hor». Era berean, urte horietan guztietan herritarrekin harreman «arras polita» eraikia zuen, eta itxierak, hein batean bederen, hori etetea ere bazekarren.

Ostatu eta dendatik landetxe izatera

Ostatu eta denda itxi aitzinetik, ordea, 1993aren bueltan, landetxea ireki zuten: «etxeko guztien artean hartutako erabakia izan zen, etxea haundia izaki, etekina ateratzeko modua bagenuela pentsatu genuen». Ireki zutenetik egunera bitarteko «hogeita bortz urteotan» aldaketa nabariak gertatu direla adierazi digu: «bortz logela eta hiru komunekin hasi ginen, orain logela guztiek komuna ez ezik, telebista eta wifia ere badute, jendeak erosotasuna eskatzen du». Pixkan-pixkan jendearen eskariak eta gizartearen garapenak bere egin dituzte: «lehen eskuorriak egiten genituen eta horiek hedatzea zailagoa zen; orain, Internetari esker, atzerriko jendea ere etortzen da eta zorionez jende aunitz ezagutzeko aukera eskaintzen digu horrek». Lana «ongi» egiten dutela ikusirik, hartutako bidea «hartu beharrekoa» zela uste du zigarrak. Baina bada gogoan duen zerbait: «herrikoekin izaten nuen hartu-eman faltan botatzen dut». Gaur egun herrian denda eta ostaturik ez izatea «ez da samurra» edozer erosteko kotxea behar izateaz gainera, dendek eta ostaluetek, oro har, zerbitzuek «herria bizitzen eta harremanak sortu eta sustatzen laguntzen» dutela uste du, «eskolek egiten duten bezalatsu».



Koldo Uribe-Etxebarria Erratzuko bere dendan.

«Dendari esker erlazio estua dut herritarrekin»

KOLDO URIBE-ETXEBARRIA ALMANDOZ ERRATZUKO DENDARIA

Dena ez da beltza. Joera kontrakoa bada ere, batzuk dendak irekitzera animatzen dira. Horietako bat da Koldo Uribe-Etxebarria. 2002an joan zen Erratzura bizitzera eta 2005ean Altxuko denda janari-denda ireki zuen: «alde batetik, lana nahi nuen eta bertetik, etxeko beheko solairuari probetxua ateratzen ahal niola pentsatzen hasi nintzen». Hala ireki zuen denda, eta ez da damutu hartutako erabakiarekin, orain artekoaz «arras balorazio positiboa» egin baitugu. «Denda herrian finkatua da eta hasierako asmoak betetzen ari dira. Herrian bizi eta lan egin nahi nuen eta lortu dut bizimodua hemendik ateratzea». Negozioa ireki aitzinetik «beldur pixka bat» sentitu zuela onartu arren, «dendak etorkizuna izan zezakeela» pentsatu zuen: «Erratzu kulturaliki eta sozialiki herri bizia da, eta herritarrek bertan bizia egiteko ohitura dute». Aldi berean, gazteengan «herrian bizitzen gelditze» joera ikusten zuen, baita «lehen joandako batzuk itzultzen ari zirela» ere. «Argi» omen zuen «dendaren martxa nagusia herriko jendearekin» egin nahi zuela, baina turismoa ere bere alde ikusi zuen: «herri erakargarria izanda, nahiko jende mugitzen da eta horrek ere bere eragina izaten ahal zuela pentsatu nuen».

Hamahiru urteko ibilbidea

Denda ttikien egoera «nahiko zaila» dela jakitun da, eta argi du sektorea indartzeko gakoa herritarren esku ere bada-goela: «jendeak horrelako dendak herrian izatearen garrantziaz kontziente izan beharko luke. Denda edo ostatu bat ixten delarik, penarekin solasean sumatzen da jendea, baina hori erraten duenak zerbait egin du ez ixteko?». Denda ttikien jarraipena «denon esku» dagoela uste du: «guti edo aunitz, baina dendak erabiliz ez dira itxiko».

Oztopoak oztopo, berak ausartzea erabaki zuen eta hor segitzen du 13 urte beranduago, kontent: «egunero bada mugimendua eta adin guztietako jendea hurbiltzen da. Adinduak dezente, helduak ere bai, eta gazteak gutxiengo baina ibiltzen dira». Gainera, lana lortzeaz gain, estimu haunditan duen bertze zerbait lortu du: «herritar aunitz ezagutzea eta beraiekin harreman estua izatea lortu dut».



Ana Mari Mujica zubietarra.

«Lanordu asko, tratu eta eskaintza ona behar dira»

ANA MARI MUJICA SANTESTEBAN DENDARI ETA TABERNARI IZANA

Ez du aise atzenduko Ana Mari Mujicak 2008ko abenduaren 20a, 40 urtez bizitza ostatuari eta ostatua bizitzari lotuta ibili ondotik, erretiroa hartu eta ateak ixteko ordua ailegatu zitzaion eguna: «bezeroek agur hunkigarria egin zidaten, trikitixaz girotutako festa ederra antolatu zuten». Urte horietan guztietan ostatuan «edariak, pintxoak, bokatak, zenbait plater» eta dendan «janariak, garbiketa eta drogeriko produktuak, hasiera hartan baita oinetakoak ere...» zubietarrei behar zuten guztia eskaini zien Etxekenea ostatu-dendak. Goizero 07:30ean ateak ireki eta «askotan» gauerdia arte egoten zen zabalik. Festak edo inauteriak ez baziren Ana Mari Mujicak «bakarrik» lan egiten zuen: «dendaz eta tabernaz ez ezik, familiaren zaintzaz eta etxeko lanez ere arduratzen nintzen».

Ostatuetan bada argi izpirik

Gazterik hasi zen lanean, «hiru ahizpak laguntzen hasi ginen eta ezkondu ondotik nire gain hartu nuen ardura». Hasieran bai dendak, bai eta ostatuak ere «martxa ederra» zuela gogoratzen du, baina garai zailak ere bizitu izan ditu: «supermerkatuak ireki zirenean denda ttikiek lur jo zuten». Gaur egun, oraindik orain, «denda ttikietan erosi beharrean supermerkatuetara joan ohi gara eta ostatuz ostatu ibiltzeko ohitura asko aldatu egin da». Horren lekuko da Zubietan ostatuak eta dendek izan duten beherakada nabaria: «nik zortzi ostatu eta denda ezagutu ditut eta gaur egun bi ostatu eta denda baino ez daude irekita». Jarrera hori aldatu ezean, Mujicak «denda ttikiei etorkizun iluna» ikusten die; ostatuetan, ordea, «bada argi izpi bat oraindik». Hortik bizi ahal izateko, «ordu aunitzez lan egitea» ez ezik, «bezeroak izatea eta edaria saltzea» ikusten ditu gakoak: «edariak salduz ongi irabazten da» nabarmendu du. Era berean, saltzeko eta bezeroak erakartzeko, «tratu eta eskaintza ona» ematea eta esker onekoa izatea funtsezkoa da zubietarraren ustez. Berari, oraindik orain, esker onak ez zaizkio bukatu: «ibilbide luze horretan guztian bidelagun izan ditudan familiari, lagunei eta batez ere bezeroei nire eskerrik beroenak eman nahi nizkieke» gaineratu du.



Jubilotekako erabiltzaileak eta Toki Onako ikasleak elkarrekin. UTZITAKO ARGAZKIA



Opariak eta musuak elkartrukatzeko, azken eguneko bestan. UTZITAKO ARGAZKIA

Jubilotekako kideak eta Toki Onako ikasleak elkarlanean

Duela bi urte hasitako proiektuarekin segitu dute aurten ere, adinekoak eta gazteak hartu-emanen jarritz

TTIPI-TTAPA BERA

Toki Ona Institutuko zenbait ikasle, 4. DBHko *Balore* ikasgaiako 24 ikasle hain zuzen ere, eta jubilotekako 16 kide harremanetan jarri dira. Hala, ikasleak lau goizez bisitan joan dira jubilotekara eta solasaldi luzeak eduki dituzte elkarrekin. Solasaldi horietan, bertako

kideek beraien bizipenak kontatu zizkieten ikasleei eta ikasleek ere beraien intereseko galderak egin zizkieten.

Ikasleen erranetan, «hasieran eskolako lan bat bezala hartu genuen, baina beraiek ezagutu genituen egunean gogo handiak eduki genituen proiektuarekin hasteko, alaitasun

eta umore handiko jendea zegoela ikusi genuen eta bagenekien hagitz ongi pasako genuela». Eta hala izan da, bi taldeak gustura ibili dira. Adinekoen erranetan «hagitz gazte jatorrak etorri dira» eta nerabeen hitzetan, «hagitz solasaldi interesgarriak eduki ditugu. Maiz aditu ditugu kontrabandoko edo gerrako istorioak, baina zuri kontatzen dizutenean, lehen pertsona bizitzen duzu». Baina iraganaz gain, jubilotekako kideek beraien egungo bizitza ere kontatu zieten nerabeei.

Ikasleek bizitzarako aholkuak eskatu zizkieten adinekoei eta aholku on aunitz jaso zituzten, hala nola: ikastea, besta egitea, hasten den hori bukatzea,

pertsona onak izatea, oraina bizitzea, duguna baloratzea, txarrenari onena ateratzea... Ikasleek adierazi dutenez «ez ditugu aise ahantziko aholku horiek».

Azken egunean besta antolatutako hamaiketako eta ikasleek gitarrekin jotako kantak, opariak... Oparien artean hauexek egon ziren: argazki albumak, erretratuak, kontatutako bizipenekin egindako ipuinak, bertsoak, olerkiak, gutunak, Aimar Olaizola-ren argazkia sinatuta, lore-sortak, eskuz egindako pilota eskaintzarekin, txiste liburuxka bat... Eta nola ez, jubilotekako kideek ere beraiek eskuz egindako eskulan bat oparitu zion ikasle taldeari.

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA

· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

⚡

· BOLETIN INDUSTRIA

· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailerak jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA

**GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK**
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ikubilu

OSTATUA
SAGARDOTEGIA

HARAGIA ETA ARRAINA BRASAN
Eguneko menua | Asteburuko menua

Uralde karrika, 6
BERA
T. 948 110 913

Ekainaren 29an aurkeztuko dute Euskaraldia herrian

Euskal Herri osoan eginen den ekimena martxotik ari da prestatzen beratar talde bat

TTIPI-TTAPA

Herritar euskaltzaleak aktibatuta hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburua. Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkartek urteetan zehar landu duten Euskarak 365 egun lanildoaren baitan kokatzen da eta bi mugarri izanen ditu. Batetik, euskal hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea eta beren harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea izanen da 2018ko azaroa eta abendua bitartean eginen den *Euskaraldia 11 egun euskaraz* ekimenaren helburua. Bertzetik, hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatua denez, 2019an, mota guzietako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea izanen da helburua.

Euskaraldia Beran antolatzeko talde bat lanean ari da martxoaz geroztik. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra eginen da Euskaraldia Euskal Herri osoan, eta herrian bidea arra-

kastatsua izan dadin, prestaketa-lanetan ari dira, ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezan, herritar ahalik eta gehien inplikatzeko. Euskal Herriko gainerako tokietan bezala, Beran ere, euskalgintza eta erakunde publikoak elkarrekin ari dira Euskaraldia antolatzen, eta batzordean euskaltzaleak, euskara sustatzeko erakundeetako ordezkariak, eta Udalekoak eta Euskara Mankomunitatekoak elkarlanean ari dira.

Ekimenaren aurkezpen soziala egin eta nondik norakoak aurkezteko ekitaldia antolatu dute heldu den ortziralera, ekainaren 29a, 19:00etan, Illekuetako parkean. Ordu erdi inguruko ekitaldia izanen da, «laburra eta bizia», antolatzailen arabera, Euskaraldia zer den ezagutzeko balioko duena eta norberak nola parte har dezakeen erakutsiko duena. Musika eta bertzelako sorpresaren bat izanen du, eta Euskaraldiak berak bezala, herritar anitzen partaidetza izanen du.

Ibai Etxarrik irabazi du kartel lehiaketa

Ibai Etxarri Elzaurdia donostiarrak egindako lana aukeratu dute bestetako programaren azalean agertzeko eta 400 euro irabazi ditu. Kontrazalean Andrea Gouraud eta Nerea Fagoagaren lana azalduko da. 8 lan aurkeztu dituzte.



IBAI ETXARRI ELZAURDIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Abesbatzak ikasturte bukaera

Abesbatzak kalejira egin du herrian barna ekainaren 9an, ikasturteari akabaila emateko. Hurrengo ikasturteari begira, San Esteban eguneko meza kantatuz hasiko dira eta ekitaldi nagusia urte bukaerarako utzi dute, Berako Musika Eskolako txistulariekin batera kontzertua eskainiko baitute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Altzateko pintxo onena Auzoakoa

Altzateko bestetan lehen aldiz egin den Pintxo-Jira lehiaketan Auzoako *Iparraldeko Pintxo*a suertatu da txapeldun. Botoa eman dutenen artean 30 euroko hiru erosketa-txartel ere zozketatu dituzte eta Aloña Lasaga, Veronique Tomasena eta Encarna Navarro suertatu dira saridunak.

Anterola
Tekniko instalatzailea
**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

LABE ZAR
Astelehenetik
ortziralera:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

JauJena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformat, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak**

Elektragailuen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Electroband eskainiko du aurten Musika Bandak

Ekainaren 30ean, larunbat eguerdian hasita, kontzertu tikiak emanen ditu ostatu atarietan

AITOR AROTZENA

Azken urteotako ohiturari eutsiz, sanferminen aitzineko asteburuan emanaldi berezia antolatu du aurten ere Musika Bandak, Udalaren laguntzarekin. Oraingoan *Electroband* emanaldia antolatu du Mikel Iriartek zuzentzen duen bandak. Ekainaren 30ean izanen da, larunbat eguerdiko hamabietan hasita. Ostatzu ostatu (Zialdo, Koxkila, Kasino, Irubide) ibiliko dira, ostatu bakoitzaren atarian kontzertu tikiak emanez.

Musika Bandatik jakinarazi dutenez, joan den urteko abenduaren 30ean Pepito Yanciren omenez eskaini zuten kontzertuaren DVDak ere salgai jarriko dituzte larunbateko emanaldietan. Egun hartan, musika ez ezik, antzerkia, bideoa, eta bertze hainbat ikus-



Musika Banda ariko da larunbatean.

garri eskaini zituzten, emanaldi gustagarrian.

Sanferminen aitzineko asteburuan bertzelakoak ere izanen dira. Arkupe pilotazale elkarteko pilota eskolako gaztetxoek pilota jaialdia eskainiko dute, larunbat arratsaldeko lauretan hasita, udal pilotalekuan.

Azken urteetako ohiturari eutsiz, zuzenbidean, Zarandia auzoan ere besta giroan murgilduko dira.

Bizikume taldeak ateraldia eginen du herrian igandean

Bizikume emakumeen txirrindulari taldeak ateraldia antolatu du uztailaren 1ean, igandean 09:00etan Lesakan. Plazatik abiatuta, Bera, Ibardin-go lepoa, Urruña, Ziburu, Azkaine, San Inazio lepoa, Sara, Lizaietako lepoa eta Etxalarren barna, berriz ere herri-ara ailegatuko dira, 72 kilometro luze eta 1.400 metroko malda duen ibilbidea egin ondotik. Izena emateko (ekainaren 27ra arte) eta informazio gehiagorako, bizikume_baztan@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Autodefentsa ikastaroa larunbatean

Autodefentsa ikastaroa antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Berdintasun Institutuak lagunduta. Ekainaren 30ean egingen dute, larunbatean 10:00etatik 14:00etara Harriondoa Kultur Etxeko Zumarra aretoan.

Era guztietako eraso sexistak identifikatuko dituzte, ahalduztzearen beharraz solastu eta erasoei aurre egiteko autodefentsa tailerra eta erasoei aurre egiteko urratsak ikasiko dituzte. Izen-ematea 948 635036 telefonoan.



RAFAEL ENETERREAGA

Jeiki abesbatza ikastolaren alde

Giltzarri Abesbatzak antolatuta, Leitzako Jeiki abesbatzak kontzertua eskaini zuen ekainaren 16an komentuan. Zenbait zozketa egin zituzten ondotik eta bildutako dirua Tantirumairu ikastolarentzat izan zen. Oroigarria ere eman zioten Maria Luisa Etxeberria ikastolako zuzendariari.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Irain eskolaren ikasturte bukaera

Irain eskolan ikasturte bukaerako besta ospatu zuten ekainaren 16an. Tailerrak eta herri-kirol erakustaldia izan zituzten Igantziko gaztetxoek eskutik. Ondotik, sokatira tiraldiak egin zituzten, Beti Gazteren laguntzarekin. Ederki bazkaldu ondotik, musikarekin alaitu zuten bazkalondoa.



KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetrikoko ultralasterra

T. 637 40 86 40 • 31780 BERA • andonimatxako@gmail.com

Markel Iturria eta Iker Bizente CNCko Olinpiadetan

Ikasten ari diren Elgoibarko institutuan bertan izan ziren olinpiadak eta tornuan aritu ziren biak

IRUNE ELIZAGOIEN

Maiatzaren lehenengo astean, Markel Iturria eta Iker Bizente IMH ikastetxea ordezkatuz, Produzioaren Programazioa eta Fabrikazioa goi mailako zikloaren alorrean egin ziren tornu eta fresadora CNCko olinpiadetan parte hartu zuten. Ikasten ari diren Elgoibarko institutuan bertan izan ziren olinpiadak eta tornuan aritu ziren biak. Ikastetxe frankoko ikasleek hartu zuten parte



Iker Bizente eta Markel Iturria. I.ITURRIA

bertan: Easo, Lasalle, Arratia, Tolosaldea Armeria eskola eta abar.

Su-itzalgailuen errebisioa hilaren 30ean egingen dute Kultur Etxeko arkupean

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 30an egingen da aitzineko urteetan erositako su-itzalgailuen edo extintoreen errebisioa, larunbat goizeko hamarretan Kultur Etxeko arkupean. Errebisioaren kostua edo bertzelako mantentze-lanak jabearen kontura izanen dira.

Gogorarazi dutenez, mendiko suak itzaltzeko pala be-

reziak baserrietako ondorengo ordezkariek dauzkate: Urritzokietan, Zamudieneko-bordan, lau pala; Larrapil-Sarrikun, Iturraldeko-bordan, lau pala; Lakain-Apezborron, Arrineko-bordan, lau pala; Orizkin, Tolareko-bordan, lau pala; Lurritiederran, Goine-txegaraian, lau pala eta Goro-surretan, Maisterreneko bordan, lau pala.



LANDAGAIN ESKOLA

Ikasturte bukaerako kanpaldia

Ikasturte bukaerarekin batera kanpaldiak egin dituzte Landagain eskolako ikasleek. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoak Zugarramurdin izan ziren; Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak Hondarribian egon ziren; eta 3. eta 4. mailako ikasleak Lizarran. Denek primeran pasatu zuten.



Udaberriko VII. pilota txapelketa

Finalak jokatu zituzten. Julene Danboriena eta Aritz Larburuk 18-13 irabazi zieten Maddi Martinez eta Asier Telletxeari (ttikiak); Markel Irazokik 22-15 Aitor Azkarragari (alebinak); Joseba Telletxeak 22-15 Kemen Ansalasi (infantilak). Xabier Telletxeak 22-13 Markel Etxarteri (kadeteak).

Lehen jaunartzea egin dute sei neska-mutikok

Maiatzaren 27an Oier Aginagalde, Iker Otxoteko, Iraia Hidalgo, Añez Iribarren, Maialen Gastearena eta Eneritz Aranburuk Lehen Jaunartzea egin zuten. Prozesioa ere egin zuten.



IRUNE ELIZAGOIEN



- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa
- FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA

USOA
Nekazari kooperatiba T. 948 635 214 ETXALAR



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL



Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Lau auzo konpostagune paratu dituzte herrian

Materia organikoa bereizteko zerbitzuak hobetu nahi ditu Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak

NEREA ALTZURI

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak urratsak eman ditu hondakin organikoaren bereizketa eta birziklapenaren inguruan. Lau auzo konpostagailu paratu ditu: sarrerako aparkalekuan, Dena dendararen ondoan, Osiña karrikan eta kanposantu aldeko bidegurutzean. Berriki arte ez zegoen auzo konpostagailurik eta hori izan da egin den berrikuntza nagusia. Gainera, konposta agudoago eta hobeki egiten duten konpostagailuak dira.

Auzo konposta egiteko 35 familiek eman dute izena eta joan den astean, konpostagailuen funtzionamendua azaltzeko saioa eskaintzeko zien mankomunitateko teknikariak.

Bertzalde, belarra, hostoak eta adarrak uzteko eta konpostatzeko gunea aitzinerago egokituko dute, baita hondakin bereziak biltzeko etxola ere. Horrez gain, birziklapenari bulkaldi bat emateko errefuxen edukiontziei tapa tikiak jarri dizkiete eta arropa-edukiontzia paratu dute aparkalekuan.

Burlada jatetxea pantailaren bertze aldean

Joan den ekainaren 13an, ETB-ko *Betiko Lekuetan* dokumentalean agertu zen Burlada jatetxeko arduraduna eta sukaldaria den Esther Burlada. Bere sukaldean, ahate entsalada eta aspizuna foie eta oporto saltsarekin prestatu zituen.

Kontzertuz betetako uda antolatu dute Aterpean

Musikazaleek aukera ederra izanen dute udan Aterpean. Uztailaren 12an, Don Inorrez ariko da (19:30); hilaren 20an, Joseba Irazoki eta Mikel Uraken (19:00); hilaren 21ean Eme taldea (22:30) eta 27an Trini Fox (22:30). Abuztuaren kontzertu gehiago izanen dituzte.

Arantza Rock-en 23. edizioa abuztuaren 25ean

Gazte Asanbladak zehaztu ditu dagoeneko zein izanen diren abuztuaren 25ean egingen den 23. Arantza Rock jaialdian parte hartuko duten taldeak. Azken Trena, Kulto Kultibo, Bultz eta DJ Balber izanen dira. Ilunabarrean, berriaz, Matraka elektrotzaranga ariko da.



Plaza, iazko Arantza Rocken.

31 hurrek parte hartuko dute udaleku irekietan

NEREA ALTZURI

Abiatzeaz dira Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolaturiko udalekuak. Uztailaren 2an hasi eta uztailaren 27a arte, 10:00etatik 13:00etara 3 eta 12 urte arteko 31 haur eta gaztetxo bilduko dira Amaia, Nerea eta Olaia begiraleekin.

Haurrak eskolan elkartuko dira egunero, bakoitza bere gosariarekin. Batzuetan egingen dituzte ekintzak eta bertzeetan, handik abiatuko dira egingen dituzten txangoe-tara. Lehenbiziko egunean, osasun txartelaren kopia eraman beharko dute.



ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Irailera arte agurtu dute eskola

Ekainaren 19an agurtu zuten ikasturtea eskolako ikasleek. Halere, ikasturtearen akabailan ohikoa den bezala, kanpaldietan ibili dira (argazkian 1. eta 2. mailakoak) eta bertze ateraldiak ere egin dituzte. Tartean, Lehen Hezkuntzakoek hondarreko egunean Heletara eginikoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrak Altsasukoekin

Joan den apirilko manifestazioan bezalaxe, ekainaren 16an ere, Altsasuko gazte eta familikoei elkartasuna adierazteko, aranztar aunitzek parte hartu zuten Iruñeko manifestazioan. Argazkiko kuadrilla autobusean joan zen herritik baina bertze horrenbertze herritar eta gehiago ere joan ziren.

«Elkartearen eskua ikusten da herriko ekintza gehienetan»

JOSETXO ARBURUA BILTOKIKO LEHEN PRESIDENTEA

TTIPI-TTAPA

Biltoki Elkartearen sortu zenetik 40 urte bete dira aurren. Urteurrena aitzakitza hartuta, zenbait galdera egin dizkiogu Josetxo Arburua Martinekorenari, elkarteak izan zuen lehenbiziko lehendakariari. **Hasteko, kontu iezaiguzu nondik sortu zen elkarte sortzeko ideia?** 1973rako gogoan genuen elkarte bat sortzeko asmoa, biltzeko eta herrian zenbait ekintza antolatzeko: pilotarekin lotutakoak, Olentzeroak... Beranduxeago, eskolako idorpean egindako bildots-jate batean jende bizkorki bildu zela aprobetxatuz, gaia gehiagolantzeko aukera izan genuen eta gutako batzuk herriko etxearekin harremanetan jartzeko erabakia hartu genuen. **Zer nolako harrera izan zuen asmoak?** Alkatearekin egon ginen lehenbiziko eta hagitz ongi iruditu zitzaion. 1975ean izan zen hori eta segidan idatzi bat bidali genuen herriko etxera, eskola azpian zeuden biltegien zati bat eskatuz. Hogeikoak edo "veintena" k baiezkoa eman zigun, Diputazioarekin trami-

teak egin beharko zirela azpimarratuz.

Horretara iritsi eta gero, zaila izan zen proiektua gauzatzea?

Egia erran, ez zen erraza izan. Lan aunitz egin behar izan genuen auzolanean, ez baikeen sosik ere. Gure elkartera herriko jendea biltzea ere pixka bat gosta zitzaigun baina 1978ko martxoaren 4an, Iruñean tramite guztiak egin ondotik, ez ohiko lehenbiziko batzarra egin genuen. Orduan aukeratu genituen, bertzeak bertze, elkartearen izena, Igantziko Biltoki, lehenbiziko junta eta hilabetero ordaindu beharreko kuota, 200 pezeta. **Gazteen atala ere orduan sortu zen?**

Bai. 14tik 18 urtera bitarteko gaztetxoentzat ere irtenbide bat bilatu nahi izan genuen eta bertze atal bat egitea erabaki genuen, elkartearen gidaritzapean. Lau urteak atal horretan pasatzen dituzten gazteek ez dute deus ordaintzen helduen elkartera sartzeko. Gazteen prestakuntza eta elkartearekiko sensibilizazioa da helburu nagusia, baina ez dakit betetzen ote den.



Josetxo Arburua izan zen elkarteko lehen lehendakaria. OSKAR TXOPERENA

Zein da, zure ustez, Biltokik herriari egiten dion ekarpena?

Urtean zehar berak zuzenean antolatzen dituen ekintzak hagitz aunitz dira eta bertze gaineko gehienetan ikusten da bere eskua: kirolean (mendi bizikleta, mendi irteerak, pilota...), kulturean (Olentzeroak, antzerkiak, bertso saioak, musika...), sukaldaritzarekin lotutakoetan, bestetan eta bertze hamaika kontutan. Ez dezagun atzendu eskolari egi-

ten dion ekarpena ere, bere lokalak uzten baitizkio eskolako jangelarako.

Eta elkartearen etorkizuna, nola ikusten duzu?

Jendearen parte-hartzeak orain arte bezala segitzen badu ez dago kuidadorik, osasuntsu ikusten dut. Egoitzarekin gertatzen ari dena ere normala da, eskolak noizbait behar baldin bazuen bertatik ateratzeko baldintzarekin hartu genuen lekua. Herriko etxeak irtenbide bat eskaini dio elkarteari, baina, egoera lehen baino aunitzez hobea izanik eta 200 bazkide baino gehiagorekin, bertze aukera batzuk lantzearen alde nago, gure egoitzaren jabe izatea ez genuke baztertu beharko.

«GURE EGOITZAREN JABE IZATEA EZ GENUKE BAZTERTU BEHARKO»

BORTZIRI GARRAIO TXARTELA

Egun batez topo trenean eta La Burundesa autobusean erabiltzeko balio du

Joan-etorri TARIFA		
ABIAPUNTUA	HELMUGA	HELDUA
DONOSTIA-IRUN	BERA	5,18€
DONOSTIA-IRUN	LESAKA	6,08€
DONOSTIA-IRUN	ETXALAR	7,08€
DONOSTIA-IRUN	IGANTZI	7,68€

Informazio gehiago: www.laburundesa.com | www.euskotren.eus | 948 303 505





Hip-hop eta ballet dantzariak, Lesakako saioan. LEIRE SANZBERRO/RUBEN IRIGOIEN

Herriko dantzariak ikasturtea akitu dute Lesakako saioan

Rebeca Dantza Akademiako ikasleek hip-hop eta ballet erakustaldia eskaini zuten ekainaren 16an

MAIDER PETRIRENA

Ekainaren 16an Doneztebeko Rebeca Dantza Akademiakoek euren erakustaldia eskaini zuten Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Bi saio ikusgai izan ziren, 17:00etan eta 19:00etan. Lehen saioan hiru sunbildarrek parte hartu zuten hip-hop modalitatean: Hegoa Irazoki Urtxegi, Sara Gartzia

Sanzberro eta Juliana Boico. Bigarren saioan ere bertze hiru sunbildar genituen baina kasu honetan ballet modalitatean: Maren Irigoien Arretxea, Haizea Larzabal Arriola eta Maialen Maritxalar Ibarra.

Seikote honek ere beraien saioaz ederki gozatu zuen eta honekin 2017-2018 ikasturteari agur erran diote.

Igerilekua zabalik egonen da irailaren 15era bitarte

Ekainaren 15ean herriko igerilekuak atea ireki zituen bertze denboraldi batez gozatzeko. Irailaren 15a bitarte irekita egonen da. Aurten berriz ere ordu aldaketa izanen da. Goizeko 11:00etan irekitzen ari dira, beraz adi!

Herriko txirrindulariak Altsasuko BTTn

Ekainaren 10ean Altsasun XXIII. BTT karrera jokatu zuten eta bertan hiru sunbildarrek parte hartu zuten, beraien mendi-bizikleta hartuta: Iker Bertiz Bertiz, Mikel Bertiz Ibarra eta Joseba Gartzia Agestak. Ederki ibili ziren.



ASIER ITURRALDE

Kenpo-Kai gerriko berriarekin

Ekainaren 9an Berako kiroldegian Kenpo-Kai azterketak izan zituzten. Horien artean, lau sunbildar poz-ozik etorri ziren gerriko berriarekin: Nahia Vertiz Babace, Ekiñe Bertiz Ariztegi, Itziar Erasun Erauncetamurgil (irakaslea), Eneritz Iturralde Ezkurra eta Ibai Petrirena Gorosterrazu.

Elkartasun errugbi partidak jokatu dituzte Mutrikun

Ekainaren 2an Mutrikun sub10 eta sub 14ko rugby partidak jokatu zituzten, Marea Urdinaren alde. Sunbillatik Unax Larraburu Hernandorena eta Kemen eta Eneko Sagarzazu Latasa anaiek parte hartu zuten.



GARI LARRABURU



NIEVES BIURRARENA

Bestaberri-eguna

Ekainaren 3an Bestaberri-eguna ospatu zen herrian. Eguraldia lagun, aurten lehen jaunartzea egin duten neska-mutikoekin prozesioa egin ahal izan zuten, baita banderaren dantza ere. Florentino Gelbentzu Almandoz zinegotziak dantzatu zuen bandera, bertze urte batez.



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK



DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



Argazki lehiaketako sarituak eta epaimahaiko kideak. UTZITAKO ARGAZKIA

Alicia del Castillo eta Begoña Arizmendiren argazkiak irabazle

Argazki Rallyan, Andrea de Ruedak bertakoen saria eskuratu du eta sei urteko Ada Iribarrenek aipamen berezia

MARGA ERDOZAIN

Hamahiru argazkilarik parte hartu zuten joan den maiatzaren 19an Udalak antolatutako I. Argazki Rallyan. Bi gai eman zizkieten parte-hartzaileei goiz osoan argazkiak egiteko: udaberria eta Doneztebeko txokoak.

Sarituak

Behin lanak aurkeztuta, Iñaki Atxak, Josu Intziartek eta turismo zinegotzia den Leire Ortuostek oinarrietan ziren baldiltzak beteta, epaia eman zuten. Horren arabera, Doneztebeko Alicia del Castillok

irabazi du *Doneztebeko Txokoak* modalitatean eta Elizondoko Begoña Arizmendik lortu du *Udaberria* modalitateko saria.

Udalak bertako argazkilarien lana ere saritu nahi izan du. Doneztebeko Andrea de Ruedak eskuratu du aipamen hori. Hiru sari horiek ehuna eurokoak izan dira. Eta akitzeko, Elizondoko Kattalin Arizmendik eskuratu du parte-hartzailerik gazteenaren saria (50 euro). Rally honek ere bitxikeria polita utzi digu, Ada Iribarren sei urteko gaztetxoak ere parte hartu baitu.

Baxera berrerabilgarria herri-bazkarian

Nafarroako Hondakinen Partzuegoak eskainitako aukera baliatuz, Udalak herri-bazkarian baxera berrerabilgarria erabiltzea erabaki du. Beraz, aurtengo bazkari horretan birziklapena eta berrerabilgarritasunari keinu berezia egiten dio herriak.

Turismo bulegoa zabalik uztailean eta abuztuan

Bestak pasatuta, uztailaren 3tik aitzinera eta abuztuaren amaiera arte turismo bulegoa zabalik egonen da. Asteartetik igandera eta goizez eta arratsalde, borts orduz, zabalduko dute. Bertatik kudeatuko dituzte herrian barna egiten diren bisita gidatuak.

Ludoteka zerbitzua uztailaren 3an martxan jarriko dute

24 neska-mutikok erabiliko dute Udalak antolatu duen ludoteka zerbitzua. 09:00etatik 14:00etara eta astelehene-tik ortziralerara martxan egonen da. Jokoak, tailerrak eta bertze hainbat ekimenez gozatzeko aukera izanen dute. Aipatu behar da oraindik abuzturako plazak libre gelditzen direla eta interesatuek 948 450017 telefonora deitzen ahal dute.

Bertzalde, neska-mutiko aunitz ludotekan dauden bitartean, San Miguel eta Mendaur ikastetxeetan hainbat mantentze-lan eta obra egiten dituzte. Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentutik 50.000 euroko diru-laguntza eskuratu du Udalak eta lan hauek egiten dituzte: alde batetik, Haur Hezkuntzako komunak erabat zaharberrituko dituzte eta bertze aldetik, larrialdietako protokoloa betetzeko hainbat ate aldatu eta egokituko dituzte.

Horrez gain, mantentze eta garbiketa lanak egiten dituzte irailan ikastetxeak txukuntxukun izateko.

Abuztuan EGA ikastaroa eskainiko du euskaltegiak

IKA euskaltegiak EGA eta C1 tituluak lortzeko ikastaroa antolatu du abuztuaren 6tik 31ra. Bi eratara egin daiteke: klase presentzialak eta on-line edo autoikaskuntzaren bidez. Abuztuaren 3ra arte apunta daiteke: 948 451555 edo maerreka@ika.euskaltegiak.eus.

Uztailaren 3tik aitzinera liburutegia goizez irekia

Uda honetan hainbat lan eginen dituzte herri liburutegian zerbitzuak informatizatze-ko. Ekain bukaeran gordailu zaharrak eta hondatuak kendu zituzten eta hori egin ondotik, Udalak dagozkion litzentziak eskuratu ditu digitalizazioa egin dadin. Nafarroako Gobernuak, liburutegiaren informatizazioaz arduratuko den enpresa aukeratzeko esleipena egin du. Enpresak urtea akitu baino lehen bibliografia funtsak digitalizatuko ditu. Udalak horretarako 5.000 euroko inbertsioa egiten du.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Giro ederra Futbol Taldearen Egunean

Bertze urte batez, giro ederrean ospatu zuen Futbol Taldeak bere eguna, ekainaren 16an. Goizean futbol partidak eta neska-mutilendako jokoak izan zituzten eta arratsaldean ere ez zen futbol partida eta jolasik falta izan. Gaueko afariarekin eta dantzaldiarekin borobildu zuten eguna.



Ezkerrean ikasle-ohi eta gurasoak herri-kiroletan; eskuinean, ikasleak mahai-jokoetan. UTZITAKO ARGAZKIAK

Ikasturteari bukaera borobila eman diote Pulunpa eskolan

Heldu den irailera bitarte oporrak hartu dituzte eskolako ikasleek

ARKAITZ MINDEGIA

Pulunpariak oporretan daude dagoeneko. Ikasturte bukarako besta joan den ekainaren 19an egin zuten. Eguraldia lagun, ederki pasa zuten eguna.

Goizeko lehenengo bi saioetan eskolako ttikiak mahai-jokoak eta eskulanak egiten

aritu ziren. Atsedenaldiaren ondotik, bi taldetan banaturik (Haur Hezkuntzakoak batetik eta Lehen Hezkuntzakoak bertzetik) ibili ziren. Joko kooperatiboetan aritu ziren gero. Bien bitartean, eskolan ate irekiak izan zituzten. 12:30ean ikasle ohiek eta guraso batzuek irakasleen aurka herri-kiror

lehia jokatu zuten, irakasleak gailendu zirelarik. Ondotik sokatiraren txanda izan zen.

Haurrek lehendabizi eta 65 helduek (guraso eta irakasleek) ondotik, bazkaria izan zuten. Paella ederrak dastatu ahal izan zituzten. Ikasleek Edorta eta Txasen eskutik, euskarakoean zintzurak berotzeko aukera izan zuten. Arratsaldean, merienda, musika, jokoak, aurpegi margotzea, zunba... izan zituzten. Ikasturtea borobiltzeko egun ederra pasa zuten.

Esker onak

Eskolako irakasleek, lerro hauen bidez, Guraso Elkarteak egindako lana eskertu nahi izan dute.

Hirigintza Planaren harira, bilera izan dute herrian

Udalak Hirigintza Plana egiteko herritarrekin parte-hartze prozesuan dihardu. Ekainaren 13an 09:00etan Pulunpa eskolako ikasleekin bildu ziren planaren diseinuarekin ari diren Maria Urmeneta eta Txokarro arkitektoak. Planari buruzko tailerra egin zuten. Bertzeak bertze, ikasleei 'Nolako herria nahi duzu?' galderara egin zieten. 12:00etan eta 18:00etan, udaletxeko ganbararen, herritarrekin izan zuten hitzordua. Pixkanaka-pixkanaka aitzinera doa parte-hartze prozesua.

San Juan suen bueltan giro ederrean

Ekainaren 23an urteroko hitzordua zuten herrian. San Juan suen bueltan saltoka ibiltzekoak ziren; baina aitzinetik indarrak hartzeko merienda-afari ederrak egitekoak zituzten, bai Iturenen, baita Aurtizen ere. Egun luzeena aprobetxatzeko plan ederra!

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak

**MUEBLES
TELLETXEA
ALTZARIAK**

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811

Dekorazio proiektu integralak

Herriko Ostatuko atea berriz ireki dituzte ekain hasieran

FERMIN ETXEKOLONEA

Anuska Garrote eta Nagore Diazek ekainaren 8an ireki zituen Herriko Ostatuko atea. Herritarrei pintxo-mokadutxo gozoak eskaini zizkieten, ibilbideari hasiera polita emanez. Haur, gazte eta helduak bertaratu ziren; ostatu bete jende bildu zen inaugurazioan. Musu eta irri artean, herritarrek hasi berri duten ibilbidean zorte ona opa nahi izan zieten.

Orain artean asteburuetan bakarrik ireki badute ere laster egunero irekitzeko asmotan dabilta.



IZASKUN ZUBIALDE

Garbigune mugikorra herrian barna

Ekainean etxeko hondakin bereziak birziklatzeko kamioia herrian izan da. Abuztuaren 11an, urriaren 13an eta abenduaren 15ean berriz bilduko dituzte, 10:15etik 10:35era. Beraz, hondakinak edozein edukiontzitara bota beharrean gordetzeko deia egin dute.

Errotaren Eskuragarritasun Unibertsaleko Plana

Udalakeskatuta, IDDEAS Fundazioak Errota Ekomuseoaren Eskuragarritasun Unibertsaleko plan integrala egin dute. Proiektua egiteko La Caixak 2.000 euroko laguntza eman du. Planak 64 hobekuntza proposatu ditu eta udalak pixkan-pixkan egiteko asmoa du.

Udan ez da ez ludotekarik ez ingeles ikastarorik

Aurtengo udan ez da ez ludotekarik ezta ingeles ikastarorik izanen herrian. Udalak ingeles ikastaroa antolatzeko ahalegina egin badu ere ez dira ikastaroa aurrera ateratzeko behar ziren bi taldeak osatu eta inork ez du ludoteka egiteko asmorik adierazi.

Herri arteko pilota txapelketan ari da Endika Santesteban

Endika Santesteban Bendoiro herritarra, Doneztebeko taldearekin, Nafarroako herri arteko pilota txapelketa jokatzen aritu da azken aldian. Lerro hauek idatzi ziren momentuan finalerdia jokatzeak zizutzen. Zorte on eta animo!



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ederra izan dute Oritzako festan

Eguraldi euritsua koloreztatuz, 32 lagun inguru bildu ziren Oritzako festan. Bazkalondoa Iker Gorosterrazuren eta Alazne Untxaloren bertsoek girotu zuten eta trikitixa eta pandereta hotsak lagun, kantuan eta dantzan aritzeko aukera izan zuten bertaraturikoek.

Erreka, igerileku eta hondartzarako toailak

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



Herri-kirol lehiari Malerrekakoak nagusitu zitzaizkien Iruñerrikoiei. J. ARIZTEGI



Bazkarian eta bazkalondoan, giro polita izan zuten plazan. J. ARIZTEGI

Giro ederrean joan da bi Urrozen arteko senidetzea

Ekainaren 16an, hogeitazetorri ziren Iruñerrietik eta Malerrekakoak bisita bueltatzeko asmotan dabilta

JAIONE ARIZTEGI

Hilaren 16an izan zen hitzordua Iruñerriko eta Malerrekako izen bera daukaten bi herrien artean. Giro ezin hobea izan zuten larunbatean goiz goizetik, herriko haurrek ongi etorri modura eskaini zituzten dantzekin. Herri-kirol desafioan ere gogotsu aritu ziren gazteak, eta Malerrekakoak suertatu ziren garaile. Bazkal orduan gazte eta ez hain gazteak plazan bildu eta bestak iraun zuen artean borobildu zen eguna, eguraldia ere alde izanik. Orain Malerrekakoei tokatzen zaie beraien herria



Ingude saioa, herri-kiroletan.

ezagutzea, eta dagoeneko pentsatuta dute errebantxarako egun bat prestatzea. «Ez dugu hutsik egingen», adierazi dute Malerrekako urroztarrek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Orreagatik Santiagora bizikletaz

Maiatzaren hondarrean Orreagatik abiatu eta Santiagora joan ziren herriko bortz lagun. Iaz bertze talde bat ere bertan egon zen, eta inbidiak jota edo, bidaia antolatu eta iritsi dira beraiek ere. Erran beharrik ez dago hauek ere ederki ibili direla, kirola egin bidenabar, otordu ederrak eginez.



**Arnedo Inda SL
ASEGURUAK**

Allianz

%20ko deskontua

Komertzioak:

- Jardueraren erantzukizun zibileko aseguruak
- Lokalaren aseguruak

Autonomoak:

- Mediku-gastuak
- Baja aseguruak
- Istripu-aseguruak



DONEZTEBE
Parrokia karrika, 21 | T. 948 450 266

BERA
Eztegara pasealekua, 26 | T. 948 625 259

691 384 651 (WhatsApp)

arnedo.ind@allianzmed.es

arnedo-inda.allianz.es

Donamarian abiatuko da 2018ko Kultur egitaraua

Uztailaren 5ean, Jauregian joko du Trío Palatino taldeak, Valdi eta Marcela dantzari-bikotearekin batera (20:00etan)

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak antolatutako Kultur 2018 programaren baitan, ekainaren 22tik irailaren 8ra musika, dantza eta arteko 36 emanaldi prestatu dituzte. Ortzegun, ortzirale eta larunbat guztietan egingen dira Nafarroako 36 udalerritan. Eskualdean, Donamaria, Elizondo, Zugarramurdi, Leitza eta Bertiz ukituko ditu.

Uztailaren 5ean, ortzegunean, 20:00etan, Donamaria-ko Jauregia dorretxean joko

du Trío Palatino taldeak, Valdi eta Marcela dantzari bikotearekin batera.

Roberto Casadok (txirula), Carlos Secok (biola) eta Sergio Larrionek (gitarra) osatzen dute Trío Palatino; hiru musikari horiek prestakuntza handia dute eta esperientzia zabala ganbera musikan; horri esker, banakako nahiz taldekako ganbera kontzertuak eman dituzte zenbait herrialdetan. Oraingoan, Valdi eta Marcela dantzari bikotearekin batera hartuko dute parte, Tangoan eta Argentinako fol-



Trío Palatino taldea eta Valdi eta Marcela dantzariak. ARTXIBOKO ARGAZKIA

klorean espezializatutako dantzariak.

Abuztuaren 3an, ortziralean, 20:30ean, Aukeran dantza konpainiak *Fusioak* eskainiko du Elizondoko plazan.

Abuztuaren 23an, ortzegunean, 18:00etan, Mara musikari portugaldarra izanen da Zugarramurdiko lezeetan.

Irailaren 7an, ostiralean, 20:00etan, Leitzako plazan Kepa Junjera eta Sorginak

emakume taldea ariko dira, tradizioa eta sormena elkartuz.

Arte plastikoak Bertizko Jauregiko Jauregian finkatuko dira **uztailaren 20tik abuztuaren 20ra bitartean**, aunitzek handikeriarik eta zabarkeriarik gabeko pintura lasaia- ren maisutzat jo duten Javier Ciga Echandi (Iruña, 1877-1960) margolari nafarraren obrari buruzko *Figurazioa eta esentzia* erakusketarekin.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera **finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Aukera paregabea Donezteben etxe berria erosteko



EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak





Arkupeak elkarteko bazkideak, Frantziara egindako bidaian. FERNANDO ETXEBERRIA

Frantziako Alpeetan eta Kosta Urdinean izan dira 97 kide

Eguraldia lagun, sei eguneko egonaldian hainbat herri bisitatzeko aukera izan dute

FERNANDO ETXEBERRIA

Ekainaren 4tik 11ra bitarte Frantziako Alpeak eta Kosta Urdina, hiruna egunez, bisitatu dituzte elkarteko 97 lagunek. Lehendabizikoa egunean Alpeetako toki erranguratsuenak ezagutzeko aukera izan zuten. Autobusean ibilbide luze bat egin ondok, Orangen egin zuten geldialdia eta alde zaharra, erromatar antzokia, katedrala... bisitatu zituzten. Biharamunean Grenoblera joan ziren, eta ikusi beharrekoak ikusita, Annecyranz jo zuten, 'Frantziako Venezia' deritzon herrira.

Interesgune nagusiak ikusiz

Bidaiariak trenez Mer de Glacera hurbildu eta Alpeetako tontorrek ikusteko asmoa izan bazuten arren, behe-lainoak ez zien tarterik utzi.

Nizan hartu zuten ostatu eta Monako zein Monte-Carlon izan ziren. Halere, denbora eskasiagatik ez zuten gusta-

DAGOENKO HURRENGO BIDAIEI BEGIRA HASIAK DIRA

tuko litzaieken guztia ikustetik izan. Sisteronen gotorleku garrantzitsua eta herrigune historikoko katedrala ikusi zituzten; Cannesko bisitan zine jaialdi ezaguna oroitarazi zuten eta Grassen lurrin bereziak erosteko aukera ere ezzuten pasatzen utzi. Avignon hiria ikusteko denborarik ez zuten izan, egun horretan bertan itzultzekoak baitziren. Ikusi zituzten herrien artean, Saint Tropez eta Saint Raphael herrien interesa nabarmendu nahi izan dituzte.

Bazkideek egun ederrez gozatzeko aukera izan zuten, eguraldiak ez baitzien hutsik egin. Joan-etorrian euria egin bazien ere, han pasatako egunetan -Nizan pasatako goizean izan ezik- ez zuten aterkirik behar izan eta eguzkiaz gozatu ahal izan zuten.

Orain irailaren 17tik 24ra bitarte, astebetetz egitekoa duten Mediterraneoko itsas-bidaiera begira hasiak dira elkarteko kideak.

Odol-emaile emankorrenak saritu ditu ADONA elkarteak

TTIPI-TTAPA IRUÑEA

ADONA Nafarroako Odol Emaleen Elkarteak 50, 100 edo 150 odol emaitza egin dituzten 250 bat lagun saritu zituen ekainaren 17an, Iruñeko Baluartean egindako ekitaldian. Joan den urtean, 24.296 odol-emaile egin ziren Nafarroan. Joan den urtean 2.085 odol-emaile berri izan ziren Nafarroan eta aurten bertze 771 lagunek egin dute odola emateko urratsa.

Baluarteko ekitaldian urrezko 163 insignia eman ziren (50 odol-emaile baino gehiago egin dutenei). Saridunen artean eskualdeko sei zeuden: Lesakako Lourdes Danboriena Castejón, Sunbillako Maitte Etxenike Mariezkurrena, Elgorriagako Paulino Etxeberria Irigoien, Lekarozko Alejandro Elizondo Iribarren, Berako Juan Antonio Prieto Irazoki eta Amaiurko Santi Urrutia Juanikotena.

Urrezko domina bikoitza (100 emaitza baino gehiago) 32 lagunek jaso zuten, tartean eskualdeko batek: Elizondoko Txuma Uriz Telletxea.

Bortz Urrezko domina hiru-koitza (150 emaitza baino gehiago) ere eman ziren, baina horien artean ez zen eskualdeko saridunik.

Mediterraneoko itsas-bidaia egiteko 59 lagunek izena eman dute

FERNANDO ETXEBERRIA

Irailaren 17tik 24ra bitarte, astelehenetik astelehenera, Mediterraneoko itsas-bidaia egitekoa dute elkarteko kideek.

Hasiera batean 52 plaza eskaini bazituzten ere, 59 lagunek izena eman dutela ikusirik, Eroski Bidaia agentzia

guztiek parte hartzeko egin ahalak egiten ari da.

Pasaportea eta Europar Osasun Txatela beharko dituzte

Bidaia egin ahal izateko, pasaportea eta Europar Osasun Txatela (internetzez eskura daitekeena) behar izanen dela

gogorarazi dute. Izan ere, bisitatuko dituzten herrialdeak Europakoak izanagatik, nazioarteko uretan barna ibiltzeko behar izanen dute. Itsasontzian gauez nabigatuko dute eta egunez lau ateraldi egingen dituzte: Napoles eta Ponpeia; Civitavecchia eta Erroma; Livorno, Florentzia eta Pisa; Villefranche; Monako eta Montecarlo. Ateraldien prezioa 194 eurokoa da (guz-

tia barne) eta abiatu aitzineko egunetan eskuratu ahal izanen dituzte, itsasontzian daudenean ez dute aukerarik izanen.

Bilkura Donezteben

Bidaia-agentziak izena eman duten 59 kideak joateko aukera lortzen duenean agentziako arduraduna Doneztebera joanen da, azalpenak ematera. Eguna alde aurretik jakinaraziko dute.

LESAKAko BESTAK

Uztailaren
6tik 10era



Unai
GURRUTXAGA

«Asteburuan gibela
erre gabe, astez herri
giroaz gozatu behar
genuke»

Hari bat urratu orduko bertzea lotzen hasten den «hogeita sei urteko lesakar gaztea» da Unai Gurrutxaga. Gaur egun, Beti Gazte Elkarteko zuzendaritzan «bereziki futboleko kontuetan», borondatzeko suhiltzaileen taldean, sokatiran, Buruztanka gaztetxeko lanetan, ezpata-dantzari taldean... dabil.

Lotura eten gabe

Batetik atera ez eta bertzean sartzen den horietakoa da Gurrutxaga. Haurra zelarik, «sei urte ingururekin» dantzetan hasi nintzen, baina futboleko murgildu ahala, horren aldeko apustua egin zuen: «zortzi urterekin hasi nintzen futboleko eta hogeita hiru bitarte ibili naiz, lesioek irabazi duten arte». Utzi aitzinetik «lagun bat eta biok, guraso batekin batera» haurren entrenamenduetan laguntzen hasi zen eta «poliki-poliki» zuzendaritzan sartu da. Futbolarekiko lotura guztiz eten gabe, «duela bi urte dantzak berrartu eta sokatira taldean sartu nintzen».

Soka tiratzen bezain trebea da Gurrutxaga ezpatak astintzen. «San Fermin Eguneke ekitaldiak, betiko besta moduarekin hausten dutenak» izan ziren entseguetara bueltatzeko aitzakia, dantzekiko harreman zuzena berrartzeko bidea. Gurrutxagarentzat «herritarrak elkartzen dituen momentu berezia» da. Horregatik, Onin ibaiaren bi ertzetan dantzatzeko eskaria handia da.

Berari bi urtez entseguetan ibili ondotik, «joan den urtean» sortu zitzaion «lehendabizikoz» Zubigainekoa dantzatzeko aukera. Hasi aitzinetik «urduritasun keinu bat» sentitu bazuen ere, hasi orduko lasaitzea lortu zuen: «inguruko jendearen zurrumurrurik ez nuen entzuten; are gehiago, momentu horretan inguruan jendea bazela ere ez nintzen ohartu».

Harri batez bi kolpe

Harri batez bi kolpe eman zituen Gurrutxagak joan den urteko uztailaren 7an. Batetik, «hautzaroko Dantzari Tiki Egunaz geroztik», aspaldian ez bezala, jendaurrean dantzatzeko urratsa eman zuen; eta bertetik, «Martxel Rodrigezen eskutik» aitzineskuaren lekukoa jaso zuen. Gogoan du berria jaso zuen eguna: «astebete lehenago izan zen. Ezustean harrapatu ninduen, eta ez nintzen momentuan erantzuteko gai izan, erantzukizunen zamak geldiarazi zidaten». Lanak lan eta ardurak ardua, «bizitzan behin egiten den galdera izaki» ezin izan zuen aukera pasatzen utzi: «aurten dena arrotza izanzen zait, eta horrek urduritasuna sortzen dit, baina ilusio haundia egiten dit». Egun handian dantzariak deskantsu ttikietan dituzten «beharrak asebetetzeko» ardua ez ezik, dantzarien gidari izanzen da Gurrutxaga. Horrek, ordea, ez dio «kezka haundiegirik» eragiten: «inguruan dantzari finak ditut eta nik gaizki eginagatik horiek ez lukete hutsik eginen».

Neska-mutil talde ederra biltzen da egunaren atarian egiten ari diren entseguetan, eta gogotik ari dira lanean. Oraindik egunean aterako den hamaborts lagunak nor izanzen diren zehazteke badute ere, Gurrutxagak badaki non duen bere tokia, argi ditu ardurak. Zubi gainean oreka mantentzeko eta burua fresko-fresko izateko «formalago ibili beharko naiz». Halere, bezperan galdutakoa errekupepatzen saiatuko dela aitortu du: «seguru lortuko dudala» dio irriz.

Lesakarrei eta lesakarrak ez direnei sanferminetako borts egunak ongi pasatzeko deia ere egin nahi izan die. Egun guztiei etekina ateratzeko «asteburuan gibela erre beharrean gainerako egunetan herri giroaz gozatu ahal izateko indarrak gorde behar genituzke» nabarmendu du.

Beko
LOREAK ETA LANDAREAK

Ongi pasa Sanferminak!!!

OTSANGO AUZOA · LESAKA · T. 948 637 826

APITTU
ALUMINIO LANAK

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeko itxidurak eta barandilak

GORA SAN FERMIN!

T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326
Otsango auzoa - 12. pabilioia | 31770 Lesaka

semper autoeskola

ESKaintza bereziak!

Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

udana

Ongi pasa Sanferminak!

Alkaiaga Ind. - 31789 LESAKA
Tel. 948 631 536 Faxa. 948 631 550
E-posta: bacalao@salazonesudana.com
www.salazonesudana.com

ONIN
AGENZIA

**ASESORIA
GESTORIA**

**AUTONOMO ETA ENPRESAK | PARTIKULARRAK
IBILGAILUAK | ASEGURUAK**
Ongi pasa San Ferminak!!!

**Bittiriako plaza, 8 31770 LESAKA T/F. 948 637359
688 665 581 onin@oninagentzia.com**

ZOANSA

SEAT Audi VW HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA | TXAPA | PINTURA
KOTXEEN SALMENTA
BERRIAK | BIGARREN ESKUKOAK | OKASIOKOAK | KMO

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA • zoansa@zoansa.com

MALE REKA
KUSTOM

Arropa eta osagarri pertsonalizatuak

Arropa - JUANAKA
50 URTE
1968-1918-1968

Armatz-Orkin estatuberrri
LEGU
GORRIKO
KOLITZU
GUTU

Nagusia, 1 • Doneztebe T. 948 451 571 / 636 885 190
male-reka@male-reka.com Male-Reka

eh
HOTEL churrut

**Churrut jatetxeak besta zoriontsuak
opa dizkizue eta urte osoko gure menuak
ezagutzera gonbidatzen zaituzte:**

Eguneako menua astelehenetik
ostiral eguerdira arte
Asteburuko menuak (27 eurotik aurrera)
Taldeentzako menuak
Jaunartze, ezkontza... menuak
Menu pertsonalizatuak eta neurrira egokituak
Sasoiko produktuekin osatutako karta

Foruen plaza | BERA | T. 948625540 | 948625542
www.hotelchurrut.com



UZTAILAK 6, ortziralea

10:30 Lesakako Buruhandi eta Erraldien Konpartsaren kalejira. Harriondoa - Andra Mari-Udaletxea. **12:00** Herriko Etxetik altxaferoa botako dute beste hasiera emanez. Ordu berean txistulariek, soinulariek, trikitilariek, Elutxa Txarangak eta haur ttikien danborradak girotuko dituzte herriko karrikak. **17:30** Frontoian, Tantarumairu Euskal Folklore taldearen erakustaldia. **20:00** Peña guzien ordezkariak altxaferoa bota ondotik danborrada nagusia abiatuko da, erraldoi eta buruhandi, danbor-jole eta soinulari eta Lesakako Bandaren laguntzarekin, herri osoari itzulua emanen diote. **Gauetz** Musika Plaza Zaharrean Trikidantz taldearekin.



UZTAILAK 7, larunbata

08:30 Ezpata-dantzarien meza isila. Joan-etorria txistulari bandaren laguntzaz egingen dute. **10:30** Udaltzatza bertze agintariekin, ezpata-dantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. **Meza ondotik**, Fermin Zaindarien irudiarekin herri guzitik prozesioa. Ondotik Eskolttikira, Onin errekarren bi aldeetan egiten den Zubigainekoa dantza ikustera, XV. mendean lesakarren artean lortu zen bakea oroitarazten diena. Segidan, Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra herriko etxera igan aitzinean. **18:00** Bezperak. Lesakako Abesbatzak kantatuko du eta ondoren, oihuturari jarraituz, ezpata-dantzari taldeak mutil-dantza, neska-dantza, aureskua eta jotak dantzatzeko ditu Plaza Zaharrean. **19:30** Plaza Zaharrean, Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Xabier Terreros, Ander Fuentes Iturri. Gai-jartzailea: Eneko Fernandez. **Gauetan** Musika Plaza Zaharrean Gabenara taldearekin.



UZTAILAK 8, igandea

09:00 Peñengosaria. **10:00** Peñen danborrada, Elutxa Txarangarekin. **12:00** Betizuak, Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **17:00** Plaza Zaharrean Mr. Pompier haurrentzako ikuskizuna. **18:00** Peñen kontzentrazioa Elutxa Txarangarekin Peñen jaitziera-rako. **20:30** Txamukos mariatxiak Plaza Zaharrean. **Gauetz** Tximeleta taldearen emanaldia Plaza Zaharrean.

UZTAILAK 9, astelehena

10:30 Haurren eta gurasoen danborrada Elutxa Txarangak lagunduta. **Ondotik** Haurrentzako entzierroa Ote kalea eta Plaza Zahararren artean. **Goiz eta arratsalde** Haurrentzako ikuskizunak Eltzeta plazan. **12:00** Betizuak Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **18:00** Frontoian eskuzko pilota partida profesionalak. **19:00** Plaza Zaharretik abiatuta Batzukada Lesakako Batukada taldearekin kalejira. **Arratsalde** Elutxa Txaranga kalez kale. **Arratsalde eta gaue**z Trakets taldearen emanaldia Plaza Zaharrean.



UZTAILAK 10, asteartea

11:00 Haurrentzako entzierroa: Eltzeta Plaza-Plaza Zaharra. **11:00** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Nafarroako Jotak. San Fermin Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta. **11:30** Haurrentzako Sakako zezen tikiak eta poniak Bittiriko Plazan. **12:00** Betizuak Plaza Zaharrean, Elutxa Txarangarekin. **17:00** Haurrentzako jarduerak Beheko Plazan. Antolatzailea Eskol-Tiki Ludoteka-Lagunekin Jolasean. **18:00** Plaza Zaharrean, Nafarroako Jotak. **20:00** Txakaindik jatsiera, Zortziko doinuarekin. **Arratsalde eta gaue**z Oharkabe taldearen emanaldia Plaza Zaharrean. **Ondotik**, jai-hilak Elutxa Txarangarekin.



TXOZNETAKO EGITARAUA

UZTAILAK 6, ortziralea

10:30 Karparen irekiera eta gosaria. **13:00** Presoak etxera kalejira musikatua txoznagunetik. **23:30** Kontzertua txoznagunean.

UZTAILAK 7, larunbata

20:00 Gazteok independentzia manifestazioa. **21:30** Fermintxo Rock jaialdia: Modus, Azalera, Skabidean eta Tirri&Tery.

UZTAILAK 8, igandea

Egun osoan Peñen eguna.

UZTAILAK 9, astelehena

14:30 Gazte bazkaria txoznagunean. **Ondotik**, Pitxi & Olaia. **18:30** Batukada poteoa. **23:30** DJ Gaua: RED3R eta 20CTAL.

UZTAILAK 10, asteartea

13:30 Herri kirol desafioa Eltzeta plazan. **14:00** Herri-bazkaria Eltzeta plazan. **Ondotik**, Andoni Ollokiegi bakarlaria. **00:00** Gaixoa ni? Gaixoa zu!

GORA SANFERMINAK!!!

bortzirudi
in prenta

kopistegia, rotulazioa, serigrafia, tanpografia, papertegia

948 631 521
bortzirudi@bortzirudi.eu



Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
eta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

Ongi pasa bestak!

EN plus A1
ES 025

BEROPEL
egurrezko pelleta

ECHVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

GORA
SAN
FER
MIN!



Beheko plaza, 10 - 31770 Lesaka
948 627 514

www.kattagorria.com





TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN, s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EKO TXAKAIN S.L.

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA

Gora San Fermin!

T. 669 840 198 / 948 638 052
Faxa: 948 627 578
Otsango Ind. 28 • LESAKA
transtxakain@yahoo.es



ITURBENA
ONGI PASA BESTAK
kafetegia

Koskontako bidea 5, behea - LESAKA



GARBILEKU
LAVANDERIA



bestak ongi pasatu
ALFONBRAK, LARRUA, ANTEA...
DENETARIK ORO HAR
GARBITZEN DUGU

Plaza Berria 8 LESAKA
T. 948 637 438

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 • LESAKA
(osasun-zentroaren parean)
BESTETAKO ORDUTEGIA
08:30-13:00



- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARAK, ALDIZKARIAK



Etorri Lesakako instalaziora,
eta gozatu dauden aukerekin!

ONGI PASA SAN FERMINAK!!

T. 948 637 400 • kiroldegia@lesaka.eus
www.lesakakoudalkiroldegia.com

Dia 
LESACA

Sanferminetan
otordu goxoak
prestatzeko
LESAKAKO DIA

Ongi pasa bestak !!

Plaza Berria, 10
T. 948 637 335

SAROB **RAKUNTZAK**
AROBE

Obra berria
Etxebizitzaren zaharberritzea
Igogailuen kudeaketa osoa:
• Diru-laguntzen kudeaketa • Obra zuzendaritza • Proiektua

Bittiria Kalea, 2 Lesaka | info@sarobe.eus | www.sarobe.eus | 639 623 473 • 649 980 394



ONGI PASA BESTAK!

OPARIAK • BITXIAK
ENMARKAZIOAK

Albistur 39 LESAKA
T. 948 627 542

JOISA



AROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, ateak,
hesiak, forja artistikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

www.talleresjoisa.com **ONGI PASA BESTAK!**
Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com




Antoiu
OSTATUA

Goizeko 6:00etatik
aitzin idekia.

GOSARIAK
BAZKARIAK
AFARIAK

ONGI PASA BESTAK!
T. 948 637 087
Antoiu, 17-LESACA





Elutxa TXARANGA

Argazkia:
TELLETXEA

Elutxa Txarangako kideek musika taldea sortzeko lehendabiziko pausoa 2013ko uztailaren erdialdean eman zuten. Orduan denak ezaguna zuten Xebitak, 60 urte bete zituen, «bere kuadrilakoek kanta batzuk jotzeko proposamena egin ziguten, berak musika hagitz gustukoa baitzuen, eta nola ez!». Xebita zur eta lur, malko artean, ikusirik, proiektu horrek merezi zuela garbi ikusi zuten gazte musikariek.

Lesakan «betidanik izan da musikarekiko afizioa» eta aitzineko belaunaldietan txaranga lesakarrak izan ziren bezala, oraingo belaunaldikoek Elutxa sortu zuten. Hasiera hartan «Lesakako Musika Bandan ikasitako piezak» izan zituzten oinarri.

Bortz urte kaleak alaitzen

Bortzirietan, Donezteben, Altsasun, Iruñean, Donostian, Donibane Garazin, Donibane Lohizunen, Barakaldon, Arrasaten, Elizondon, Gasteizen, Oiartzunen... barna ibiliak dira orduz geroztik. Toki bakoitzak bere xarma duela uste dute: «Altsasun erraterako, lau urte daramazkigu Kale Kale peñakoekin eta lagun onak egin gara; Donezteben harrera hagitz ona izaten dugu urtero eta Musakolako bestetan egun ederra pasatzen dugu bertakoekin!».

Halere, bereziena «dudarik gabe herrian jotzea da». Sanferminetan «nahiz eta ardura handia izan, lesakar bezala, herriko bestak barrenetik bizitzea zoragarria dela» aitortu digute. Herriko bestetan saltsa guztien erdian ibiltzen dira: «besta ez dugu galtzen, izatekotan irabazi!».

Aurten bortz urte bete ditu Elutxak eta aitzakia horrekin «urte guztian ospakizunetan» dabilta: sanferminetako

«Diska bat grabatu eta erraldioen zein txarangen topaketak egin nahi genituzke»

eskailerako afarietan parte hartu dute, Lesakako soinuariaren aurkako hil ala biziko futbol partida jokatu, Beti Gazteko Lerro Dantza Taldearekin musika eta dantza emanaldia egin... Eta buruan dituzte «diska baten grabaketa, erraldioen topaketa eta txaranga topaketa» antolatzekeo ideiak ere. Nahiz eta oraindik dena egitea lortuko ote duten ez duten argi, «ekintza horiek aitzinera eramateko buru-belarri ari gara lanean». Helburu nagusitzat «txarangatik pasatako guztiak berriz elkartu eta herritarrekin batera urtemuga ospatzea» dute, eta hori dagoeneko lortzen ari dira. Elutxa «musikan gure kabuz trebatzeko eta ondokoei mundu honetan sartzeko aukera emateko helburuz» sortu zuten. Norbait taldean sartzeko gogoz egonen balitz, ateak zabalik izanen dituela garbi dute. Txaranga «lana eta konpromisoa» badakar ere «lagunarteko giroan bizipen ederrez gozatzeko aukera eskaintzen» diela nabarmendu nahi izan dute: «bertze inola biziko ez genituen esperientziak bizi ditugu. Beraz, hartu zure instrumentua eta animatu!».

Bukatzeko, ez dute aipatu gabe utzi nahi bortz urte hauetan herriko jende nahiz enpresetatik jaso duten laguntza «ezinbertzekoa» izan dela: «diru-laguntza, arropa, emandako indarrak... Bultzada ederra eman digute! Eskerrik asko bihotz-bihotzez!».



asesoría
Emaizta
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

Eltzeta, 20 behea
31770 LESAKA
T. 948 638 077
www.emaitzai.eu
amaia@emaitza.eu

ongi
pasa
bestak!



Ongi pasa
bestak!

PATXI ZAMORANO

**BARNIZADURAK | LAKATUAK
KANPOALDEKO UR-BERNIZAK
BARNE ETA KANPO-DEKORAZIOA**
AKABERA RUSTIKOAK, LAUSODURAK,
ESTALDURAK, PATINAK, EFEKTU BEREZIAK...

Leitzako bidea 31740 DONEZTEBE
948 450 734 | 606 377 424
info@patxizamorano.com



ongi pasa bestak!



**IZARRA
OKINDEGIA**

PLAZA ZAHARRA 12~13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

JAVIER ALZUGARAI S.L.U

Hondeaketa eta Garraio Lanak

ONGI PASA BESTAK!



Nabaz auzoa | Guillen-borda | 31770 Lesaka | Nafarroa
T. 646 986 448 | F. 948 637 390
excavacionesjavialzugarai@gmail.com



urtek
water technologies · uren tratamenduak

POTABILIZAZIOA, DESMINERALIZAZIOA,
DESKALTZIFIKAZIOA, OSMOSIA, FILTRAZIOA,
BERRERABILPENA, DEPURAZIOA,
INSTALAZIOEN MANTENUA.

Ongi pasa bestak!

T. 948 638 188 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA BESTAK -



Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

INDARRI

HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA

Ongi pasa bestak!

T. 639 103 305

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak

ONGI PASA BESTAK!

Blurrana 8 • 31770 Lesaka
☎ 948.637.302 ☎ 619.716.322 ☎ 608.779.641
info@excavacionesubiria.com

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea
eta Sortzea
Ureztatzeko Sistema
Automatikoak
Paisajismoa

"TELLETXEA"
Lorazaintza



T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

LEGARRA TABACOS

TABAKOAK
LOTERRIAK
PAPERTEGIA
PRENTSA

ALBISTUR KALEA, 9
31770, LESAKA
TEL/FAX: 948.63.70.30
E-mail: legarralesaka@gmail.com

LOTERIA
DEZIMOAK ERE
ORDAINTZEN DIRA

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA:
8:00-13:00 / 17:00-20:00
LARUNBAT ETA IGANDETAN: 8:30-13:00



Bixente IGARZABAL
Lesakako kirolaria

«Helburu edo marka bat lortzeko egin behar den bidearekin gozatzen dut»

Bixente Igarzabal Villanueva, 46 urteko kirolari lesakarra izanen da aurren Lesakako sanferminak hasteko lehen suziria botatzeko arduraduna. Azkeneko urteetan iraupeneko triatloietan, Ironman izenarekin ezagun diren probetan egin da ezagun. 3,8 kilometro igerian, 180 kilometro pasatxo bizikletan eta bukatzeko maratonia, 42,192 metro lasterka egin behar izaten dituzte. Horietatik 21 bukatu ditu dagoeneko. Baina hori baino lehen, saskibaloian aritua da Beti Gazterekin, sokatiran munduko txapeldun ere izan da herriko klubarekin, atletismoan aritu da iraupen

ezik, ia dena probatu dudala uste dut. Kiroletik batez ere gustatzen zaidana da erronka pertsonalerako daukan puntu hori. Markatutako helburu bat edo marka bat lortzeko egin behar den bide osoarekin gozatzen dut: eguneko entrenamenduak, konpetizioak, bidaiak...».

Talde kirolean eta bakarkakoan

Hainbertze kirolen artean bat aukeratzea zail egiten zaio, baina erran digunaren arabera, «gaur egun gehien gustatzen zaidana korrika egitea da, batez ere maratoni distantziako lasterketetan gozatzen dut, bai frogak daukan gogortasunagatik, baita kaleetan egoten den giroagatik ere. Duela urte gutti arte bizikletan aritzea nuen gustukoen, baina istripu pare bat izan ondotik kirol seguruagoi lehentasuna eman diet. Eta haien guztien artean dudarik gabe seguruena korrika egitea da».

Talde kirolak (saskibaloia, sokatira...) edo triatloian bezala, bakarka aritu beharrekoak, zein gustatzen ote zaizkion gehiago galdetutakoan, bakoitzak bere alde onak eta txarrak dituela adierazi digu Igarzabalek: «Kirol

«Ironmanean 9 ordu eta erditik eta maratonia 2 ordu eta 40 minututik jaustea dira nire bururari paratu dizkieten erronkak»

karreretan... Lanbidez teknikari informatikoa da ANIMSA, baina bere pasioa kirola dela ez dago dudarik, nahiz eta bizibidea hortatik ezin atera. Igarzabalek aipatu digunez, «futbola izan

Bittiria, 18 - 31770 LESAKA
tel. 948 637 902
Juan Luis 678 993 818 - Jon 687 147 466
e-posta: otxotekopinturak@yahoo.es

Otxoteko
PINTURAK
ELEKTRIZITATEA

Ongi pasatu Sanferminak!



NIKE HERRI
BIZI BAT NAHI
DUT, ZUK?



bakoitzak bere xarma dauka eta nik zortea izan dut bakarlanean aritzeko, baita talde baten kide izateko ere. Aunitz ikasten da bi moduetan. Banakako kirolek daukaten onena da nik markatzen ditudala helburuak eta hauek lortzeko egunero «lan» egin behar dudala, inoren menpe egon behar gabe. Taldeko kirolek daukaten politena «taldea» bera da, eta lagunekin gogor entrenatzea. Bi kasuetan sufritzen da, baina sufrimendu honek daukan politena da Beti Gazteko elastikoarekin izaten dela eta Lesakako herria ordezkatzeko duzula etxetik kanpoko frogetan».

Betidanik gustatu izan zaio triatloia, batez ere distantzia luzekoa. 2008an egin zuen lehen Ironman proba, Nizan (Frantzia) eta egun hartatik 21 Ironman bukatu ditu, eta emaitza onak lortuz gainera.

«Triatloia betidanik gustatu izan zait, batez ere distantzia luzekoa. Pixkanaka animatzen joan nintzen eta 2008an parte hartu nuen nire lehen Ironman distantziako frogan, Nizan, hain zuzen. Egun hartatik, 21 Ironman bukatu ditut».

Ironbask proba irabazi zuen 2012. urtean eta hirugarren izan zen 2013an. Altriman proban bigarren izan zen 2012an, bosgarren 2011n eta laugarren 2014an. Ironmanetan, markarik hobena 9 ordu eta 32 minututa dauka (Ironcat 2016) eta 9 ordu eta erditik jaustea da bere buruari jarria dion erronketako bat. «Bertzea, maratonia 2 ordu eta 40 minutu baino guttiagotan egitea eta azkena, berriz ere

munduko txapeldun izatea Beti Gazte sokatira taldearekin», dio.

Igerian ia 4 kilometro egin, bizikletan 180 kilometro egin eta oraindik lasterka maratoni bat egitea gelditzen zaiola ikusterakoan mentalki ere indartsua izan behar du kirolariak. Igarzabalek dioenez, «hobe da deus ere ez pentsatzea eta burua garbi edukitzea... Lasterketetan epe motzeko helburuak jartzen ditut eta pentsamendu negatiboak saihesten saiatzen naiz. Ironmanetan prestakuntza fisikoak garrantzi handia dauka, baina baita entrenamendu psikologikoak ere».

Orain Sanferminetako txupinazoa botatzeko ardura... Espero zenuen?
Ez nuen inola ere espero, niretzat ustekabe atsegina izan da. Hasieran pixka bat izitu nintzen, errespetu handia ematen zidan. Baina aldi berean, ohore ikaragarri handia da txupinazoa botatzea. Ez dakit gauza handiagorik bizi izan ahal izanen dudan inoiz.

Horretarako ere entrenamendu berezirik egin behar duzu?
Seguru baietz, pentsatzen hasia naiz hau nola entrenatu...

Kirola eta besta uztartzeko modurik izaten duzu sanferminetan?

Nire juergak egiteko garaiak izan nituen, baina orain zentratuago nabil kirolean eta gehiago kostatzen zait gaez ateratzea.

Zer da Lesakako sanferminetan gehien gustatzen zaizuna? Eta guttien?

Gehien gustatzen zaidana Peñen egunean dagoen giroa da. Guttiena, asteburutan izaten den masifikazioa.

Zer da zailagoa, Bixente Igarzabal triatloia bukatzen ikustea edo gaupasa egiten ikustea?

Une honetan gaupasa egiten ikustea, baina hemendik urte batzuetara, nork daki...

Eta Ironman batetik edo bestondotik errekuuperatzen zara erraxago?
Dudarik gabe, Ironman batetik aunitzez azkarrago errekuuperatzen naiz.

Pinpirin
PELUQUERÍA • ILEAPAINDEGIA

Besta onak pasa itzazue!!

Plaza Zaharra, 26 • Lesaka
T. 948 63 80 37

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASTA BESTAK

629 592 215 • Biurrana auzoa, 1 • LESAKA

TALLERES FRAIN

LESACA • Tel.: 948 637 525

Ongi pasa bestak!

IRU-BIDE

OSTATU • JATETXEA

Ongi pasa Sanferminak!

Arratzubi Kalea 3 LESAKA
T. 948 63 71 27

E D A R I A K

Ongi pasa bestak!

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

BAR • RESTAURANTE

KASINO

OSTATU • JATETXEA

Jai alai eta pozgarriak izan itzazue

PLAZA ZAHARRA, 14
TEL: 948 637 152
948 637 287

LESACA

ONGI PASA BESTAK!

D

◀◀◀◀ HIRUKIDE ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

1753. urtean herrian idatzitako sermoi bat aurkitu dute

Ostiral Santuan, arratsaldeko mezan, irakurria izateko sortutako testuak Goizuetako euskaran idatzia dela dirudi

TTIPI-TTAPA

Urtzi Reguero Ugartek, EHU-ko irakasle eta ikertzaileak 1753an Goizuetan idatzitako sermoi baten inguruko edizio kritikoa eta azterketa egin berri du. Ikertzaileak aitortzen duenez, «tesirako gauzak bi-latzen ari zirela», sermoia «kasualitatez» aurkitu zuten: «Eusko Legebiltzarraren Liburuklik atalean». Jatorrizko testua, berriz, Eusko Legebiltzarreko artxiboan dago.

Bi hitz sermoiaz

Aurkitutako sermoiaren izenburuak islatzen duenez 1753an idatzi zen, Ostiral Santuan irakurria izateko. Testuan egilearen zantzurik ez badago ere, Regueroren ustez «litekeena da Goizuetako apaiza bera izatea». Izan ere, Jimeno Jurioren arabera, Nafarroan

literatura landu duten idazleak elizgizonak izan dira, «herri-tarrei erlijiozko heziketa ematea» helburu dutenak. Hiru ataletan banatutako sermoiak hogeita hamar paragrafo ditu eta Jesukristoren heriotzak Ama Birjiniari eginiko minaz dihardu.

Reguerok egindako sakoneko azterketaren arabera, goi nafarreraz idatzia dela esan daiteke: «ez dugu zuzenean Goizuetako euskararekin erkatu baina ez dirudi bertakotzat hartzeko zailtasunik dagoenik (...) 1825eko Goizuetako udal-ordenantzarekin erkaturik hizkera beraren aurrean gaudela pentsatzeko arrazoiak ditugu». Halere, «testuen arteko konparaketa sakonago bat egiteak zalan-tzarik gabe merezi luke» gaineratu nahi izan du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haitzaldek irabazi du I. balkoi lehiaketa

Joxenton Apezetxea eta Arantxa Ansa bizi diren Haitzalde etxea izan da Goizuetan lehen aldiz egin duten Udakolore balkoi lehiaketako epaimahaikideek hobekien baloratu duten etxea. 150 euroko saria jaso dute herriko komertzioetan gatzatzeko. Hiru hilabeteko epea izanen dute horretarako.



FELIX LOIARTE

Aralar Musika Eskolak ikasturte bukaera

Ohiturari eutsiz, ikasturte bukaerako kontzertua eman zuten Aralar Musika Eskolako herriko musikari gaztetxoek ekainaren 7an, udaletxeko aterpean. Taldeka eta adinaren edo musika-tresnen arabera banatuak, emanaldi bikaina eskaini zuten.

Biharko Izarrak txapelketan Iker Salaberria garaile

Iker Salaberriak eta Aginagako Aitor Arangurenak irabazi dute Mallabiako Biharko Izarrak txapelketa. Ekainaren 8an jokaturako finalean 22-21 irabazi zieten Javier Zabala eta Aitor Alduntzini.



UTZITAKO ARGAZKIA



FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatza aurora kantari

Umore abesbatza Hernaniko San Joan festetan izan zen, Ereñotzuko Ozenki abesbatzarekin eta abestera edo musika jotzera animatzen zen guztiarekin batera, kalez kale Aurorak kantatuz, azken urte hauetako ohitura jarraituz. Hain zuzen, hamaikagarren urtea dute goizuetarrek Hernanin abesten.



Ostiral arratsaldean eta larunbat goizean eskean ibiliko dira. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sanpedro pestak Areson ekaina behar bezala borobiltzeko

Ostiral arratsaldeko mezarekin hasi eta larunbateko dantzaldira bitarte herri-kirolak, sagardo dastaketa, afariak... izango dituzte

TTIPI-TTAPA

Sanpedroak ate joka dituzte dagoeneko. Ostiral arratsal-detik larunbatera bitarte lagun artean gozatzeko egunak izango dituzte herrian.

Egitaraua

Ostiraleko mezak, 17:00etan, iragarriko ditu pestak. Mezon-doan merienda eskainiko dute. 18:00etan herritarrak etxez etxe eskean ibiliko dira eta 21:30ean Pake Toki elkartearen egingo duten lagun arteko afariarekin borobilduko dute eguna.

Biharamunean, 09:00etan bilduko dira eta egun osorako

indarra hartzeko bapo gosalduko dute. 10:00etan eskean abiatuko dira.

Arratsaldean, berri, 17:30ean, herri-kirolak jokatuko dituzte eta 19:00etan sagardo dastaketa egingo dute. Pestak borobiltzeko 21:30ean herri afaria (menua: entsalada, oilaskoa patatekin, mousea, kafea eta pastak) izanen dute, plazako karrapen. Afalondoan kantu eta dantzarako tarte izango dute, Basajaun erromeria taldearen eskutik.

Nahi duenak pestan jarraitzeko aukera izango du, pestak indarrak bukatu arte iraunen du eta.

Hiru herritarrek jaunartzea egin dute ekainean

Argazkian ageri diren Aratz, Andrea eta Aimar neska-mutilek ekainaren 17an, igandean, egin zuten lehendabiziko jaunartzea. Senide eta lagunekin egun ederra pasa zuen hirukoteak.



ARGAZKIA: ANA OLAZABAL



Yoga amaitu eta jubilotekarekin hasi

Azarotik ekainera yoga ikastaroa jaso dute herrian. Askok lehendabiziko aldia izan dute eta «errepikatzeko gogoz» gelditu dira. Urrian berri hasiko dira, baina bien bitartean udako oporraldian saioaren bat egiteko asmoa dute. Ekainaren 19az geroztik jubilotekari ekin diote lau lagunek.

Buruhandiak egiteko tailerrak hasi dituzte

Hasi dira Jalki elkarte sortu berriak antolaturiko buruhandiak egiteko tailerrak eta lehen pieza batek bolumena hartu du jada. Oraindik lan handia dago egiteke baina gogotsu dago taldea. Santiagoetara begira herriko kondairak plazara ateratzea dute helburu.



Asteazkenero Maisuenean, 19:00etan.

Zure haurtxoaz arduratzen gara

Jostamendi Ttikia

Gipuzkoako eraskusketarik zabalena:
sehaskak, konbertibleak, kotxeak, sillitak...
Autoetarako aukietan adituak
(probatu eta instalatzen ditugu)

Letxunborro hirib. ,86 IRUN
 (bezeroentzako parking estalia)
www.jostamendittikiak.com



Lekunberriko Plazaolako tren geltokian aurkeztu zuten. UTZITAKO ARGAZKIA

Plazaola Natur Bideko Maratoia irailaren 16an

III. Maratoia eta XII. Maratoi Erdia izanen dira eta lasterkariak 42 eta 26 kilometroko ibilbideak egin beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Plazaola Natur Bideko III. Maratoia eta XII. Maratoi Erdia izanen da aurtengoa. Irailaren 16an izanen dute hitzordua eta bi probetan aurreko urtetako ibilbide bera egingen dute parte-hartzaileek. Horrela bada, maratoia Lekunberritik abiatuko da eta 42 kilometro egin ondotik Andoainen amaituko da. Maratoi erdiko kirolariak, berriz, Leitzatik irtengo dira eta 26 kilometroko itzulia egingen dute, Andoango plazara iristeko.

Ibilbidea lineala eta beheranzkoa izanen da eta anto-

latzaileek asfaltorako egokiak diren zapatilak eramatea gomendatu dute. Solido eta likidoen anoa-guneak jarriko dituzte eta lasterkariak frontala beharko dute. Probetarako Larrialdi Plana ere prestatu dute. Joan den urtean 659 parte-hartzaile izan ziren eta aurten «kopuru hori igotzea» espero dute. Izen-ematea www.maratonviasverdes.com webgunean egin daiteke.

Azkenik, aipatzekoa da, proben harira, astebururako ekitaldi gehiago ere izanen dituztela (zehaztapenak aurrerago eskainiko ditugu).

Neguko argi-mozketen harira, herritarrek bilera egin dute

JUAN MARI

Neguan Leitzan eta Areson gertatutako argi-mozketak direla eta, herritarrek horien kalteordainak jasotzeko aukera legalak izan zituzten hizpide ekainaren 18an. Maider Lazcanok, Leitzako Kontsumitzaileen Informazioarako

Udal Bulegoko arduradunak, eta Jose Luis Sanjurjok, Irache Kontsumitzaileen Bulego Laguntzaileko abokatuak, bideratu zuten hizketaldia. Bilkuran adierazitakoaren arabera, Irache kontsumitzaileen elkartek txosten bat lantzea aurreikusi du.

Irailaren 29an egitekoa duten Leitzulirako izen-ematea zabalik dago

JM BARRIOLA

Irailaren 29an, larunbatean, egingen dute Leitzuliaren hirugarren edizioa. Bizikletazaleak 42 kilometro luze eta 1.400 metroko desnibel positiboko ibilaldia egiteko 09:00etan abiatzea aurreikusi dute.



09:00etan abiatuko dira. UTZITAKO ARGAZKIA

Izen-ematea zabalik

Dagoeneko zabalik dago izen-ematea eta www.kirolprobak.com web orrialdean egin ahal da, irailaren 24ra, aurreko astelehenera, bitarte. Parte hartzeko, federatuek, joan den urtean bezala, 15 euro eta ez

federatuek, berriz, 18 ordaindu beharko dituzte. Antolatzailerak egunean bertan izena emateko aukerarik ez dela egonen jakinarazi nahi izan dute.

Udal igerilekuak zabalik irailaren 16a bitarte

Ekainaren 16an ireki zituzten udal igerilekuak eta hiru hilabetez zabalik izanen dituzte. Irailaren 16ra arte ikastaroez gozatzeko aukera izanen dute bertaratzen direnek. Behar bezalako zerbitzua eskaini ahal izateko Udalak zortzi langile kontratatu ditu.

Laster jakinaraziko dute txupinazoa nork botako duen

Gero eta gutxiago gelditzen da herriko pestetarako. Larunbatean izan zuten txupinazoa nork bota erabaki ahal izateko azken boto bilketa eguna eta azal eta kartel lehia-ketako lanak bidaltzeko epea bukatu da. Hurrengozenbakian eskainiko dira xehetasunak.



O. BENGOTXEA

Gorritarango pesta jendetsua

Eguraldia lagun, herritar ugari Gorritarango pestaz gozatu zuen. Ikuskizunez betetako eguna izan zen: kirolak, musikak eta dantzek giroa. XXXIII. mus txapelketa Gonzalez eta Barandiaran bikoteak irabazi zuten; Txintxurrin txapelketa, berriz, Jon Ander Zabaletak.

Jubiloteka zerbitzua ostegunero, ekain eta uztailean

Ondoren berriz irekiko dute; zerbitzua abendura bitarte eskaintzea aurreikusi dute

TTIPI-TTAPA

Joan den ostegunean, ekainaren 21ean, abiatu zen Leitza-ko jubiloteka zerbitzua. Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuak abiatu berri duen zerbitzu horretan hamaika lagunek hartuko dute parte. Oporraldi baten ondoren berriz ere martxan jartze-ko asmoa dute.

Gizarte Zerbitzuen bidez eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntzaz, ekainaren 21ean abiatu zen jubiloteka zerbitzua, Areson, Aranon eta Goizuetan ere eskainiko dutena. Zerbitzuaren helburu nagusia adinekoen bizi aktiboa bultzatzea eta ongizatea sustatzea da. Helburua asebetetzera bidean, jubilotekako txokoan burutuko diren ekintzak osasuna lantzerantz bideratuak izanen dira. Besteak beste, luzaketak,

koordinazio eta oreka ariketak, komunikazioa eta memoria lantzekoak... egingen dituzte. Hiru orduko saioak izanen dira, ekainean eta uztailean ostegunero, 10:00etatik 13:00etara bitarte, udaletxean. Maixa Becerra hernaniarra gidari dutela hamaika lagun bilduko dira eta oporraldi baten ondoren, beste hiru hilabetez luzatu eta abendura arte eskaintzea aurreikusi dute.

Zerbitzua jaso ahal izateko hilabetean 10 euro ordaindu beharko dira. Lehendabiziko hilabetea dohainik izanen da.

OPORRALDI BATEN ONDOREN, ASMOA ABENDURA ARTE LUZATZEA DA



J. ZABALETA

80 eskulangile Ehoziri Topaketan

Euskal Herriko 80 eskulangile inguru elkartu ziren Leitza-ko Kultur Aroa borobiltzeko Linu Putzu Elkartek antolatutako Ehoziri Topaketan: Altsasukoak, Andoaingoak, Ibarakoak, Iruñekoak, Tafallakoak... Elkartearen 20. urteurrenean, irakasle izan duten Gloria Irurtia omendu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Larreen Eguna ospatu dute

Lehen sektoreak Leitza eta inguruan egin duen ekarpena ezagutarazteko asmoz, Larreen Eguna ospatu dute lehendabizikoz. Goizean Telleria baserriko Jesus Mari Lasarteren azalpenak entzun ahal izan zituzten. Ondotik, Aritz mendiko larreetara joan ziren.

Karabana Kontakteroa ekaina agurtzera

Ekainaren 29an eta 30ean Karabana Kontakteroa izanen dute herrian. Aurtengoa hirugarren karabana izanen da, Leitza-ko Ariege herriraino joanen dena. Antolatzaileek dantza garaikidea eta Jam Session irekia uztartzen dituen ekitaldian parte hartzeko deia egin dute. Ostiralean 19:00etatik 23:00etara eta larunbatean 12:00etatik 13:30era bitarte plazan izanen dira saioak; 19:00etatik 23:00etara, berriz, kiroldegian. Herriarrez gain, 70 dantzari dantzatzea aurreikusi dute.

Ekainaren 25etik uztailearen 20ra haur txokoa eta tailerrak

Urtero bezala, Udalak, Euskara Zerbitzuak eta Leitza-ko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, «euskarazko aisialdiaz gozatzeko helburuz» ekainaren 25etik uztailearen 20ra bitarte haur txokoa eta udako tailerrak antolatu dituzte. Bi taldetan banatuko dira, ikasmailaren arabera: Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak. Guztira 120 haur eta gaztetxok eman dute izena «eta urtez urteko gorakada nabarmena ikusirik oso pozik gaude» adierazi dute antolatzaileek.

X. Sagardo Egunean Petritegi sagardoa izan da aukeratua

Herriarrek hogeitazazpi sagardotegitako sagardoak dastatu zituzten. Herriko ostatuek eskainitako txorizo, gazta eta tortilla pintxoak ere izan ziren dastagai. 690 edalontzi banatu zituzten eta Petritegikoa izan zen gustukoena.



ALKE



Elizondon auzolanean ibili zen lan taldea, bildutako zaborrekin. UTZITAKO ARGAZKIA

Errekak garbitu dituzte Irekibai proiektuaren laguntzarekin

Ekainaren 2an Lekaroz, Elizondo eta Amaiurren egin zuten eta Oronozkoa gibeleratu zuten

TTIPI-TTAPA

Baztango Batzar Nagusiak 2016an martxan paratu zuen Baztango herrilurretako zabortegien garbiketa planari jarraipena emanez eta ingurumenaren egunaren harira, auzolanak antolatu ditu Udalak bailarako zenbait herrirekin elkarlanean.

Aurten ere, aitzineko urte-takoari jarraipena emanez, ekainaren 5ean ospatzen den ingurumenaren munduko eguna baliatuz, garbiketa auzolanak antolatu ditu Udalak LIFE-IREKIBAI proiektuaren ingurumen boluntariotzaren laguntzaz. Auzolanak joan den ekainaren 2rako deitu zituzten Oronoz, Lekaroz, Elizondo eta



Lekarozko taldea, lanerako prest. UTZITAKO ARGAZKIA

Amaiurren eta erran bezala, herrilurretako zabortegiak eta erreka bazterrak garbitzeko aukera eskeintzen zen hauetan.

Auzolanak lau herri horietan deitu bazituzten ere, erreka maila altua ikusita Oronozko

zita gibelatzerak behartuak ikusi ziren.

Osoz 50 lagun bildu ziren eta goiz ederra pasatu, zabor kilo andana atera eta gosari eder batekin akitu zuten ekimena.

Odol-emaleei urrezko dominak eta domina bikoitza

ADONAK emandako sarien artean, Elizondoko Txuma Uriz Telletxeak urrezko domina bikoitza (100 odol-emate baino gehiago) eta Lekarozko Alejandro Elizondo Iribarren eta Amaiurko Santi Urrutia Juanikotenak urrezko domina (50 odol-emate) jaso zituzten.

Aukeran dantza konpainia Elizondon izanen da abuztuaren

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak antolatutako Kultur 2018 programan, abuztuaren 3an, ortziralean, 20:30ean, Edu Muruamendiaren gidatutako Aukeran dantza konpainiak *Fusioak* eskainiko du Elizondoko plazan.

Erremontea ikusgai izanen da Elizondoko frontoian

Nafarroako erremonte txapelketako jardunaldia jokatu da uztailaren 27an Elizondon (19:30). Lehen mailan, Ezkurra II.a eta Ion, Urtasun eta Barrenetxea IV.aren kontra eta promozio mailan, Eloy eta Juanenea, Etxarri eta Garcesen kontra ariko dira.

San Martin ikastetxeko ikasle ohien bilkura

Ornoz-Mugairiko San Martin ikastetxeko ikasle ohiek bilkura egin zuten ekainaren 9-10eko aste honetan. Garai bateko ikastetxea eta ingurua bisitatu, argazki erakusketa ikusi eta elkarrekin bazkaldu zuten, elkarrekin argazkia atera aitzinetik.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertzeko aldeko aitortzen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Ortiziraleko zikiro jatean ere giro ederra izanen dute Azpilkuetan. AMAIA ITURRIRIA



Gazteen bazkaria, hondarreko egunean. AMAIA ITURRIRIA

Azpilkuetan ere sanferminak ospatuko dituzte

Ekitaldi ugari prestatu dituzte uztailaren 4tik 7rat eta hondar egunean, gazte bazkaria eta tortillada izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz gainezka dator Sanfermin bestetako egitaraua Azpilkuetan ere. Lau egunez besta giroa zabalduko da herrian.

ASTEAZKENA, UZTAILAK 4 BESTEN HASIERA

- 18:30ean txupinazoa beste hasiera emateko.
- 19:00etan haurren pilota txapelketa. Ondotik, frontenis txapelketako finala.
- 21:30ean Baztan Zopak Joxe Angel Elizalde alaiturik.

ORTZEGUNA, UZTAILAK 5 HAUR ETA HELDUEN EGUNA

- 11:00etatik aitzinera puzgarrietan jostatzeko aukera izanen dute frontoian.
- 16:30ean herriko mus txapelketa.

HAUSPOLARIEK TALDEAREKIN GAUPASA IZANEN DA AKITZEKO



Azpilkuetan ere badakite ederki pasatzen sanferminetan. AMAIA ITURRIRIA

- 17:00etan txokolatada eta aurpegi margotzea eta jostatzeko aukera gehiago ttikienendako.
- 20:00etan Los Tajudos del Norte mariatxi taldearekin dantzaldia.

ORTZIRALEA, UZTAILAK 6 ZIKIRO JATE EGUNA

- 08:00etan sua piztea.
- 09:00etan gosaria.
- 14:30ean zikiro jatea, Joxe Angel Elizalde alaiturik.

- 21:00etan zikiro afaria eta ondotik dantzaldia Joxe Angel Elizalderekin.

LARUNBATA, UZTAILAK 7 SAN FERMIN EGUNA ETA GAZTEEN EGUNA

- 12:00etan luntxa herriko elkartearen.
- 14:00etan gazte bazkaria.
- 21:00etan tortillada
- 00:00etan Hauspolariek taldearekin dantzaldia eta besten akabaila.

BENITO MENNI OSPITALE ZENTROA (ELIZONDO)



Hermanas
Hospitalarias
BENITO MENNI OSPITAL ZENTROA

Osasun mentaleko arreta eraginkorra, eskuragarria eta kalitatezkoa, adin guztietarako:

- Antsietatea - Depresioa
- Loaren nahasmenduak
- Nortasunaren nahasmenduak
- Adikzioak - Dementziak

Mendinueta z/g
31700 Elizondo
www.hospitalariasnavarra.org

Centro con plazas concertadas con
Gobierno de Navarra

Zerbitzu berria
**PSIKIATRIA
ETA PSIKOLOGIAKO
KONTSULTA ANBULATORIOAK**
Tel. 948 452 162

Arte Jardunaldiak antolatu dituzte Iruritan abuztuan

Jardunaldiak abuztuaren 28an eta 29an egingen dituzte baina ekainaren 30ean akituko da izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Talentudun gazteen eta esperientzia handiko profesionalen arteko zubia izateko helburuarekin, Arte Jardunaldiak antolatu dituzte abuzturako. Hilaren 28an eta 29an egingen dituzte Iruritako Jauregian, eta bi egunetan, hurbiltzen direnek zalantzak eta zailtasunak artearen munduko profesionalekin partekatzeko aukera izanen dute, baita interes bera duten gazteak ezagutzeko aukera ere. Gonbidatuen artean hiru profesional ezagunek parte hartuko dute: Lucie Geffre artista frantsesak, Jose Luis Franchez Apezetxea Bianako Printzeko arkitekтуak eta Jose Maria Hualde y Ruiz de Gamiz bildumagile eta artearen maitaleak.

Arte Jardunaldiak arte jakintzak eskuratu nehi dituzten ikasleentzako dira. Hala nola, Arte Plastikoen Batxilergoko ikasleentzat, Arkitektura Eskolakoentzat, Arte Ederretakoentzat, Gizarte Lanen ikasleentzat Diseinukoentzat, Arte Historiakoentzat eta gisako bertzte hainbat gaietan ari di-

renentzat. Zaletasuna edo lanagatik arte plastikoen munduan hasten diren bertze edo zezinek ere parte har dezake.

Izen-ematea

Jardunaldietan parte hartzeko 83 euro ordaindu beharko dira eta horrekin antolatutako ekintza guztietan parte hartzeko aukera izanen da, baita 28ko bazkari eta afarian ere. Interesatuak ekainaren 30era arteko epea izanen dute izena emateko, beti ere gehieneko kopurua gainditu arte. Izena ematearekin batera, 45 euro ordaindu beharko dira *Patrimonio para jovenes*en kontu korrontean. Behin hori egin ondok, *Patrimonio para jovenes*ek baieztatuko e-mail bat bidaliko du eta onartuak izan direnek abuztuaren 21era arteko epea izanen dute parte hartzeko falta den diru kopurua ordaintzeko, hau da, 38 euro. Parte-hartzaileak izen-emate ordenaren arabera onartuko dituzte. Informazio gehiago: patrimoniojovenes@gmail.com edo lg@luciegeffre.com.



ARGAZKIA ETA TESTUA: NEREA MORTALENA

Ikasturte bukaerako besta Arraiozen

Ekainaren 15ean izan zuten ikasturte bukaerako besta Arraiozen. Gosaria, bertsoak, antzerkien bideoak eta argazkiak ikusteko aukera izan zuten. Iker Ezkurrari despedida egin zioten, Lekarozko Institutuan hasiko baita. Hurrengo kurtsoan lau neska-mutiko sartuko dira eskolan.

Grabazio sistemaren arazo bategatik ezin izan dute deklaratu hautetsiek

TTIPI-TTAPA

Bertzte behin ere Baztango hautetsiak, alkatea eta udal-gobernu taldeko lau zinegotzi, epaile aitzinean izan ziren Palacio de Aroztegia enpresak salatuta. *Pelotazo urbanistikoaren* kontrato protesta bat Elizondoko plazan baimen-

tzeagatik salatuak izan dira oraingoan. Baztandik Iruñeraino eramanarazi eta grabazio sistemaren arazo baten-gatik ezin izan zuten deklaratu ekainaren 7an eta hori gogor salatu zuen Joseba Otondo alkateak. Irailean deituko dituzte berriz.



BAZTANDARREN BILTZARRA
GAINEAN DUGUI!!

GU PREST GAUEDE... ETA ZU?

ONGI PASA BESTAK!





ORBELA
SENDERISMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



744 484 361
ttipi-ttapa

Etxepare Saria irabazi du Legasako Dani Martirenak

Iruñeko Ana Ibañezekin batera, 'Cosimoren katiuskak' albumarekin, 5.000 euroko saria jasoko du

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 19an banatu ziren Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez antolatzen duten Etxepare Saria. Hemeretzi lan aurkeztu dira eta horien artean, Legasako Dani Martirena Indart eta Iruñeko Ana Ibañez Elosuaren *Cosimoren katiuskak* suertatu da irabazle. 5.000 euroko saria izanen dute eta saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, euskaraz, 2018ko udazkenean. Lan irabazlean, Cosimo eta parke txiki bat dira protagonista.

Cosimok zuhaitz batean eraiki du etxola, eta hortik inguruari erreparatzen dio. Egileek Italo Calvinoren *Il barone rampante* liburu ezagunaren erreferentzia erabili eta gaurkotu dute, Cosimo haurrari baliabide berriak eman dizkiote eta, gizartearen kokatuz, edertasunaren aldarrikapena zabaldu dute.

Leire Bilbao idazleak, Leire Salaberria ilustratzaileak eta Asun Agiriano haur bibliotekariak osatutako epaimahaiak azpimarratu duenez, «gogoe-tarako kontakizuna ere bada



Ana Ibañez Elosua eta Dani Martirena Indart saridunak. UTZITAKO ARGAZKIA

gaur saritzen ari garen obra hau, testuak poesia du, umorea eta jolasa: hitzekin jolasten du idazleak, irudiekin marrazkilariak. Biek album ilustratu baten ezaugarri nagusiak biekain erakusten dituzte, hau da, irakurlea adi egotearena eta heldu baten konpainia ezinbestekoa izatearena, xehe-tasun guztiak harrapatzea nahi

badugu. Cosimoren katiuskak liburu indartsua da bai testuan baita ilustrazioan ere, aberatsak dira bi lengoaiak. Teknikoki ausarta, guztiak du zeresana, eta horregatik irakurketa ugari eskaintzen du; arriskatzeko duen obra bat da, euskal idazle eta ilustratzaileen maila ondo baino hobeto erakusten duena».

JOSEPHINE'S ENGLISH
Bertako irakasleak

MATRIKULAZIOA IREKITA:
2018-2019. Ikasturteko klase partikularrak

Josephine Etcheverry eta Christina Irigoyen
948 453 453

Amairuko Gaztelua, 2 Elizondo

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUTURA EN PIEDRA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

AUTOESKOLA
INDURAIN

**ZIKLO
MOTORE
KLASEAK
ELIZONDON**

**GIDABAIMEN
GUZTIAK**

AUTOESKOLA
INDURAIN
Pedro Axularkoa
31700 Elizondo
T 650 519 052
T 948 580 179

Uztailaren 2an hasiko da udako merkatua

Irailaren 24ra bitarte astelehenero plazan izanen dira artisauak eta merkatariak

TTIPI-TTAPA

Apirilaz geroztik, ortziraletan arratsaldetan izaten den ekoizleen azokaz gain, uztailaren 2tik goiti udako merkatua egiten hasiko dira artisauak eta merkatariak plazan. Irailaren 24a bitarte (irailaren 10ean salbu) astelehenero plazara aterako dira 09:00etatik aitzinera.

Ortziraletan, berriz, ekoizleek beraien produktuak eskainiz segiko dute: ardi eta ahuntz gasnak, jogurtak, barazkiak, txerri eta aratzeen haragiak, untziak, eztiak, Ezpeletako piperrak, marmeladak... Iraila bitarte 16:30etik 20:30era denetarikoa produktuak erosteko aukera izanen da frontoian.

Agendako hitzordu gehiago

Merkatuaz gain, hainbat hitzordu izanen dira ondoko egunetan. Ereiaroaren 30ean, erraterako, St Josep eskolakoek urteroko besta ospatuko dute kiroldegian. 18:00etan haurrek ikusgarria eskainiko dute eta ondotik jatekoa eta edatekoa izanen da.

Langile euskaldun bat behar dute Olhain Ikastolan

TTIPI-TTAPA

Olhain Ikastolan langile euskaldun bat behar dute 2018ko irailetik 2019ko ekainera astean lau egunez aritzeko, 25 orenez.

Ama Ikastolan irakasleei laguntzeaz gain, zainketaz, kantinez eta pausaz arduratu beharko du. Euskara menpe-

Aitzineko asteetan bezala, abesbatzen doinuekin gozatzeko aukera ere izanen da. Uztailaren 5ean, Larrun Kantabesbatzak kantaldia eskainiko du 21:30ean elizan. Sartzea hamar euro ordaindu beharko da, baina 14 urtez behekoek urrikizanen dute eta hogeiko taldean joanez gero, bakoitzak zortzi euro ordaindu beharko ditu sartzeko. Uztailaren 12an, berriz, Atsulai abesbatzaren txanda izanen da. 21:30ean elizan ariko dira kantari.

Pilota, dantzak eta herri-kirolak

Uztailaren 10ean, Sarako Izarra Pilota eta Errugbi taldeek eta Zazpiak Bat dantza taldeak ikusgarri ederra prestatu dute: 19:30etik goiti esku huska pilota partidak, herri-kirol saioa eta Zazpiak Bat taldearen dantza saioa izanen dira frontoian. Denbora txarra baldin bada, kiroldegian egingen dute. Helduek 8 euro ordaindu beharko dute eta hamabi urtez behekoek 4 euro. Jatekoa eta edatekoa ere emanen dute.

ratzea eta bi urteko esperientzia eskatzen dute. CAP izatea ere hobetsiko dute.

Interesatuak motibapen gutuna eta curriculumak uztailaren 10a aitzin bidali beharko dute: olhainikastola@gmail.com edo *Olhain Ikastola, Mendibixa, 64310 Sara*.



GANEX

Kinto bazkaria giro ederrean

1945ean sortutakoek kinto bazkaria egin zuten eriaroaren 9an. Hogeia lagun elkartu ziren eta bazkari on bat egiteaz gainera, memento eder bat pasatzeko aukera izan zuten, lehengo kontuez solastatu eta euskal kanta batzuk kantatu bidenabar.



GANEX

Hiru ama familiako ohoratuak

Aurten ere ama familiakoak ohoratu ditu Herriko Kontseiluak. Maritxu Andiazabal, Laurence Blanco eta Maritxu Zundak –argazkietan senitartekoekin– ereiaroaren 15ean hartu zuten lore buketa eta brontzezko domina, Marie Helene Oronoz axuantaren eta Battit Laborde auzapezaren eskutik.

Akerreta errotan bertako artoa ehotu dute aurten

Eihera ikusliareri ireki diete, eta bertako laborari batek bere uzta ekarri du irina eta taloak egiteko

PIERRE BASTRES

Urte guziz bezala, bere eiherako ateak ireki ditu Joanes Etxeberri, eta tresneria piztu du bihiak lehertzeko bisitarien aitzinean. Aurten, ordea, eho duen artoa bertakoa zen, Stephane Mitxelena laborari gaztearena, hain zuzen. Hura ere hor zen, eta bere mozkinak eta etxaldea gogotik aurkeztu ditu.

Hamar urte baino gehiago laborantzatik urrun egonez, lotu zaio bere haur eta gazteko ametsari: laborari bilakatu da. Bere etxaldea Ezpeletan atzeman du, eta lur gutti izanki, mozkin-ainitzeko laborantza egiten du, «Bio» edo ekologikoa gainera. Stephanek adierazi duen bezala «Hektarea gutti badugulakoz denetarik egiten dugu: artoa, ezpeletako piperra, erleak, kintia arrazako zerri zombait ere badauzkagu. Gure mozkinak Bio edo ekologikoak dira. Baina karraskan ari naiz ene etxaldea bertze moldean antolatzeko: zuhaitz fruitutsuak landatuko ditut, bertako sagarrak, aranak eta gereziak.

Arbolen artean ene landareak eginen ditut. Zuhaitz-agrogintza deitzen da egin-molde hau, geroz eta gehiago ohartzen baikara zuhaitzek ainitz emaiten diotela laborantzari: aniztasuna, fruituak, geriza landare eta aziendari, erleak, ...».

Laborantza Ganbararen laguntzari eskertua

«Hesiak ere uzten ditugu, -dio Mitxelenak- adibidez laparra ez dugu kentzen hegiatarik, moztan dugu baizik. Laborantza Ganbarak lagundu izan nau ainitz, milesker heieri! Egun eiherarat ekarri duten artoa *Eskual Gorria* deitzen da, hemengo mota. Gorraila da, eta gustu handikoa. *Franztziarra* eta geroxeago *Amerikanoa* motakoak nagusitu zitzaikion, baina hori aitzin nonahi atzematen zen Eskual

«EIHERRAK BILATZEN DITUGU IRINA EKOIZTEKO ETXETIK HURBIL»



Stephane Mitxelena laborari gaztea, arto gorriarekin. PIERRE BASTRES

Herrian. Badu 15 urte Jon Harluxetek sortu zuen Arto Gorri elkarte, eta elkartarekin eiherak bilatzen ditugu irina ekoizteko gure etxaldeetarik ahal bezain hurbil. Gisa bereetik, gure irinazko taloak egin nahi ditugu, zuzenki egosteko eta saltzeko bestetan».

Joanese, Akerretako nagusiak eranstean duenez, «ene

familiak eta Stephanenak aspaldi elkar ezagutzen dute, etxeko bihiak Stephanen aitat ekartzen zituen honat gazte zenean! Oro har egunaldi eder-rra izan da. Jendeek ikusi eta ikasi dute nik uste! Heldu den urtean zergatik ez besta giroa azkartzea, eskual kantu bat edo bi emanez?».

Ez litzateke aukera txarra.

Herriko bestetan murgilduko gara asteburu honetan

PIERRE BASTRES

Azken alean aipatu bezala, Jondoni Petri kari herriko bestak ospatuko dituzte egunotan. **Ereiaroaren 29, ortzilearen,** eskolen lasterketa, esku huskako Senpereko openeko lehen finalderdia, zintzur bustitzea eta Zikiroa, *Ezberak* taldeak

alaituta izanen da. Etixeratzeko taxiak urrikik.

Uztailaren 1ean, igandean Meza, Emak-Hor, Danborrada eta txarrangek animatuta, esku huskako Senpereko opena, zintzur bustitzea, bazkaria, Tonbola, ahate jokoa; Kantaldia, Niko Etxart eta Robert



Ahate jokoa igandean. ARTXIBOKOA

Larrandabururekin eta dantzaldia, Samain taldearekin. **Astelehenean,** Laborantza primak, eskeak, desfilea, gazteen pilota txapelketaren finalak esku huska eta bildoski dastaketa eta gaualdia, Klikak alaituta.

Asteartean, zintzur bustitzea, pintxoak, petanka txapelgoa, aurren askaria eta animazioak, egunez eta gauez: Txarangak, kontzertuak eta DJa.



Koteto Ezkurra, erremontea utziko duela iragarri zuenean Galarretan. MAIALEN ANDRES

«Hogei urtez erreferente izatea txapelak baino garrantzitsuagoa da»

KOTETO EZKURRA DONEZTEBEKO ERREMONTISTA

Koteto Ezkurra erremontea utziko duela iragarri du. Irailaren 29an jokatu du azken partida eta Patxi Zeberio izanen du arerio. «Lagun handi gehiago badituz, baina lau bakarrik ari gaitezke»

AITOR AROTZENA DONEZTEBE

Koteto Ezkurra erremontea utziko duela iragarri du. Doneztebeko aurrelari handiak 44 urte ditu, baina irailaren 29an Galarretan jokatu duen hondarreko partidaren behin betiko erremontea zintzilikatu baino lehen, dozena bat partida jokatzeko asmoa du.

Koteto Ezkurra historiako erremontelari onena dela uste dute adituek, Jesus Abregorekin batera. Aita zenak bultzatuta, oraindik 17 urte egin gabe zituela 1990ean debutatu zuenetik, 28 eman ditu profesionaletan. Buruz buruko 11 txapel irabaziak ditu, inork baino gehiago, eta binaka borts ere lortu ditu.

Azken aldian maiz samar dituzun lesioek zerikusia dute erremontea uzteko erabakiarekin?

Joan den urtean ere pare bat aldiz pasatu zitzaidan burutik. Kantxa barrenean beroa naiz, dena ematen dut eta bortxatzen nuenean hautsi egiten nintzen. Gorputzak gehiago ematen ez duenean, burua ere joan egiten da. Ez nuen arrastaka ibili nahi. Orain, emaztearekin solastatu eta utzi beharra sentitzen banuen uzteko erran zidan. Hamar egun hartu nien eta enpresari jakinarazi nion erabakia eta enpresak ulertu du erabaki hau.

Irailaren 29an jokatu du azken partida, baina udan partida gehiago izanen dituzu...

Oraindik uda gelditzen da aitzinetik eta badut ilusioa... Garai polita izaten da guretzako eta hor erre nahi dut azken kartutxoa. Zeberio lagun handiaren kontra aritu nahi dut azken partidaren, hori garbi dut, Etxeberria III.a ere hor dago, nire iloba Josetxo, Txibi Uterga... Sentimentalismo pixka batekin muntatu dugu azken partida, baina lau bakarrik aritzen ahal gara.

«NIRETZAT HASIBERRIAK EDO IZARRAK BERDINAK IZAN DIRA»

Nola hartu dute erremontezaleek zure agurraren albistea?

28 urte aunitz dira eta momentu politak izan ditut, jarraitzaile aunitz, nirekin erremontea bizitu dutenak. Jendearen aldetik erantzun handia izan da, hainbat mezu jaso ditut... Mundu honetan pertsona maitatua sentitu naiz. Bizi erdia baino puska gehiago eman dut erremontearen munduan. Umea izaten sartu nintzen, 16 urterekin, eta gizon egin naiz. Erremontek dena eman dit eta esker hitzak berterik ez ditut.

Txapel-sorta ederra lortu duzu, baina zuk ere eman diozu erremonteari...

Hamaika txapel lortu ditut buruz buru. Kontent nago nire palmaresarekin, ahal dudana eman dut eta horrekin gelditzen naiz. Gehiago ematen ahal zela? Beharbada bai, baina ez diet sobera erreparatzen txapelei. Niretzako inportantea izan da hogei urtez enpresan erreferentzia izatea, konstantzia, lana, konpromisoa... Uste dut lagun ona izan naizela enpresarekin, lankideekin... Niretzat hasi berriak edo izarrak berdinak izan dira eta berdin tratatu ditut.

Ez dira unerik onenak erremontearentzat...

Erremontea aldatu da, gazteak aldatu dira, frontoia aldatu da... Erabat ezberdina da. Gu bertze perspektiba batekin sartu ginen eta orain gazteek bertze modu batera ikusten dute. Ohiturak aldatu dira urte hauetan, eta erremontea zulo batean dago. Denok egin behar dugu lan zulo horretatik atera dadin. Bitartean etxeko lanak ongi egin izanaren sentimenduekin utziko dut gerrikoa. **Irailaren 30ean zer aldatuko da zure bizitzan?**

Pertsona arrunta naiz eta bizitza normalarekin segituko dut. Azken urtean erremontez gain, bertze lanak ditut, dibertsifikatzen hasia naiz. Erremontearen konpromisoa ez dudala sumatuko dut, baina bizitza ez zait sobera aldatuko.

Bigarren aldiz debuta egingen du Gorka Urtasunek

Hiru urteko geldialdiaren ondotik, Nafarroako erremonte txapelketan hasiko da Iruritakoa berriz ere profesionaletan

TTIPI-TTAPA IRURITA

Duela hiru urte utzi zuen Gorka Urtasun Saldiasak (Irurita, 1986ko maiatzaren 11) erremonte profesionala. Tarte honetan, bertze lanetan aritu da, baina kirola erabat alde batera utzi gabe, mendiko lasterketetan edo laxoa txapelketan aritu baita, bertzeak bertze. Orain, berriz ere erremontera bueltatuko da eta ekainaren 19an Isaban aurkeztu zuten Nafarroako XIII. Erremonte txapelketan aritzea da lehen mailan, Barrenetxe IV. arekin bikote eginez. Oriamendi 2010 enpresaren programetan hasiko da agudo.

Koteto Ezkurak erremonte utziko duela iragarri berritan, erremontearen munduan baikor hartu dute Urtasunen itzulera. Inor ezin daiteke Ezkurrekin konparatu, baina

Urtasunek erremonte utzi zuenean, aurrelarien artean onenen artean zegoen, batez ere frontoi laburrean. Horren erakusgarri, Labriten jokatu zituen Eguberrietako buruz buruko lau txapelketak irabazi zituen. Duela hilabete batzuk, Erremonte Fundazioarekin harremanean jarri zen Iruritako aurrelari bizia eta itzultzeko ateak ireki zizkieten. Oriamendi 2010 enpresarekin lanean hasi zen, itzultzeko entrenamentuak egiten. Oinarrizko prestaketa fisiko bikaina dauka Urtasunek eta entrenamentuetan joko ere ongi dabilera erakutsi du.

Nafarroako erremonte txapelketa

Nafarroako erremonte txapelketa San Joan egunez abiatzeko zen Tuteran eta Nafa-



Gorka Urtasun, Urrizaren kontra jokatutako partida batean. ARTXIBOKOA

rra osoko hainbat frontoitara ailegatuko da. Tartean, eskualdean, Elizondon uztailaren 27an eta Donezteben irailaren 21ean ariko dira. Hauez gain, Urriza eta Azpiroz izanen da lehen mailako laugarren bikotea. Ligaxkako lehen postua lortzen duen bikoteak irailaren 30ean Zubirin jokatuko den finalerako txartela eskuratuko du. Bigarrenak eta hirugarrenak elkarren kontra jokatuko dute irailaren 28an

Agoitzen, finalerako bigarren txartelaren bila.

Promozio mailan ere lau bikote ariko dira, tartean Doneztebeko Eloy Garciak eta Saldiasako Aritz Juaneneak osatutakoa. Beraiekin batera, Etxarri-Garcés, Aldabe-Martirena eta Barricart-Olano ariko dira. Hauek ere sistema berdintsua dute. Urriaren 12an Lekunberrin jokatuko den finalerako txartela lortuko du lehen sailkatuak.

Promozio txapelketako finala jokatuko dute Eloy Garciak eta Aritz Zubirik

TTIPI-TTAPA

Berriki debuta egin duen Eloy Garcia doneztebarrak profesionalak bere lehen txapelketako finalerako txartela lortu du, Aritz Zubiri goizuetarrarekin bikote eginez. Promozio txapelketaren finalerdian Aldabe eta Martirena, Lekunberriko bikotea izan zuten arerio ekainaren 16an Galarretan. Lekunberrikoak ziren faborito argiak, lehen faseko partida guztiak irabaziak baitzituzten, baina Eloy eta Zubiri nagusitu ziren, 35-31, partida gogorren ondotik.



Eloy Garcia, pilota astintzen. M. ANDRES

Ekainaren 30ean jokatuko dute finala, Etxabe eta Labaka edo Barricart eta Zalduaren kontra. Hauek, ekainaren 23an jokatzea zuten bigarren finalaurrekoa.

Beñat Txoperena igantziarrak lortu du saiatuenaren saria Okzitaniako Errutan

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Txirrindularitza profesionalean bidea egiten ari da Beñat Txoperena igantziarra, Euskadi-Murias taldean. Taldeak Okzitaniako Erruta proban parte hartu du Frantzian. Ekainaren 16an, azkenaurreko etapan, lasterketa-buruan hainbat kilometro ihesean eman zituen Txoperenak saiatuenaren saria lortu zuen. Gainera, aipatzekoa da etapa hasieran erori eta belauna zaurituarekin egin zuela lasterketa osoa. Etapa hura eta sailkapen orokorra Movistar



Txoperena saritua. @EUSKADI_MURIAS

taldeko Alejandro Valverde handiak irabazi zuen, baina igantziarra, Euskadi-Muriaseko taldekideak bezalaxe, nabarmendu zen hainbat kilometrotan.

EKAINAK 28 - UZTAILAK 12

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKASTAROAK

LEITZA

Hondakin bereziak eta materia organikoa kudeatzen ikasteko formazio saioak

Mendialdea Mankomunitatean, ekainaren 28an, 17:30etik 20:00etara.

LESAKA

Autodefentsa ikastaroa

Harriondoan, ekainaren 30ean, 10:00etatik 14:00etara.

IKUSKIZUNAK

SARA

ST Joseph eskolako ikuskizuna

Ekainaren 30ean, 18:00etan.

Zazpiak Bat eta pilota partidak ikusgai

Uztailaren 10ean, 19:30ean.

LEITZA

Karabana Kontakteroa

Ekainaren 29an eta 30ean, plazan eta kiroldegian.

SENPERE

Euskal dantzak

Frontoian, uztailaren 10ean, 21:00etan. Sartzea: helduek 7 euro eta haurrek 3.

HITZALDIA

BERA

Euskaraldiaren aurkezpena

Illekuetako parkean, ekainaren 29an, 19:00etan.

KIROLA

LESAKA

Emakumezkoen Pilotako San Fermin Torneoaren finalerdia

Uztailaren 1ean.



LESAKAKO MUSIKA BANDA

LESAKA San Juan bezpera

Suen aitzakipean hainbat ekitaldi: mahai ingurua, musika, bertsoak, afaria, ezpata dantzariak, zozketak, kantaldia...

Emakume txirrindularien hitzordua

Lesaka-Bera-Ibardingoa lepoa-Urruña-Ziburu-Azkaine-San Inazio lepoa-Sara-Lizaietako lepoa-Etxalar-Lesaka. Uztailaren 1ean, 09:00etan.

BERA

Baietz futboleko

Ekainaren 25etik 30era, 09:00etatik 13:00etara bitarte.

KONTZERTUAK

LESAKA

Musika Bandaren eskutik kalejira

Zialdotik hasita, ekainaren 30ean, 12:00etan.

SARA

Larrun abesbatza

Elizan, uztailaren 5ean, 21:30ean.

Atsulai abesbatza

Elizan, uztailaren 12an, 21:30ean.

DONAMARIA

Trio Palatino musika taldeak

Jauregia dorretxean, uztailaren 5ean, 20:00etan.

ARANTZA

Don Inorrez

Aterpean, uztailaren 12an, 19:30ean.

SENPERE

Missisipi Jazz Band

Inharrian, uztailaren 10ean, 21:00etan.

BESTAK

DONEZTEBE

Herriko bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitarte.

ERRATZU

Herriko bestak

Ekainaren 28tik uztailaren 1era.

ARESO

Sanpedroak

Ekainaren 28 eta 29an.

SENPERE

Herriko bestak

Ereiaroaren 29tik uztailaren 3ra.

LESAKA

Sanferminak

Uztailaren 6tik 10era bitarte.

AZPILKUETA

Sanferminak

Uztailaren 4tik 7ra.

OSPAKIZUNAK

ARIZKUN

Garagardo Dastaketa

Gamioxarrean, ekainaren 29an, 20:00etan.

LESAKA

Arkupe Elkartearen Pilota Jaialdia

Ekainaren 30ean.

ARANTZA

Emakumeen oroimen zelaia

Uztailaren 15ean.

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 22an.

AZOKAK

SARA

Artisauen azoka

Herriko plazan, uztailaren 2tik irailaren 10era bitarte, astelehenero, 09:00etan.

Ekoizleen azoka

Plazan, ortziraleroko, 16:30etik 20:30era.

SENPERE

Artisauen azoka

Plazan, astearte goizero, 08:00etatik aitzinera.

Ekoizleen azoka

Plazan, larunbatero, 08:00etatik aitzinera.



AITOR AROTZENAX

ESKUALDEA BESTAZ BESTA

Erratzun, Donezteben, Lesakan eta Azpilikueta herriko bestak dituzte. *Ekainean eta uztailean.*



ARTXIBOKO ARGAZKIA

OIEREGI Javier Cigaren margo erakusketa

'Figurazioa eta esentzia' erakusketa.

Uztailaren 20tik abuztuaren 20ra, 10:30 - 13:30 eta 16:00 - 19:00.

TAILERRAK

ARANO

Buruhandiak egiteko tailerra

Maisuenean, asteazkenero, 19:00etatik 21:00etara.

ERAKUSKETAK

OIEREGI

Cigaren margo erakusketa

Arizkunenean, uztailaren 20tik

abuztuaren 20ra bitarte, goizez 10:30etik 13:30era eta arratsalde 16:00etatik 19:00etara.

IKASTAROAK

DONEZTEBE EGA ikastaroa

Bi aukera: presentziala edo on-line.

Abuztuaren 6tik 31ra, izen-ematea: abuztuaren 3ra arte.

Nire aukera

«Motor mundua betitik gustatuagatik, rallytan aurten hasi naiz»

IKER OTEIZA UNSION LEGASAKO GAZTEA

«Motorraren mundua gustuko duen Legasako mutil arrunta» da Iker Oteiza. Motor munduarekiko lehendabiziko kontaktua «4x4 trialetan» izan zuen eta aurten «Xabier Zubeldiaren laguntzari eta Big Mat Menditxuriren, Santesteban tailerra Dacia Renault kontzesionarioaren eta Arotxa jatetxearen babesari esker», rallytan hasi da. Maiatzean, Izpegiko I. igoeran,

izan zuen lehendabiziko saioa. Momentuz «bakarrik» ibili bada ere, kopiloto baten bila hasia da. Areago, gustura ibiliko litzatekeen bat ere bururatu zaio: osabaren afizioa bere egin duen «iloba». Baina, momentuz «ttikia da, lau urte besterik ez ditu» erran digu, «noizbait berarekin atera ahal izatea» gustatuko litzaiokela gaineratuz. Hasi bada hasi, baditu ibilbide gehiago buruan, eta martxa



UTZITAKO ARGAZKIA

«LASAITASUNA ETA HARREMAN ONAK DIRA LEGASAREN BEREZITASUN NAGUSIAK»

honetan ttikia koxkortzerako podiumetan ibiliko da: «Doneztebeko eta Lesakako slalona, Aginako eta Mallerrekako rally sprinta, Urbasako igoera...» ez ditu «inolaz ere» galduko. Udazkenean sartu ahala, motorrak mendiko botekin ordezkatzeko ditu: «ehizatzea eta ehizak berarekin dakartzan ekintzak» ditu gustuko: «zakurrekin ibiltzea, txoko politak ikustea, inguruaz gozatzea...». Hilabete horietan, «inguruko mendietan» aurkituko badugu ere, «Kintora ere joaten naiz». Beraz, ehiza garaian lantokian oporrak eskatzen dituen horietakoa dela erran genezake, «baina zaletasun aunitz ditudanez bertzeetarako ere gordetzen saiatzen naiz» erran digu irriz. Legasak, «lasaitasuna eta herritarren arteko harreman ona» dituela erranen luke eta «zalantzarik gabe rallyko kotxeekin ibiltzeko zirkuitu bat falta duela» uste izanagatik, «ez nuke bertez herriren batengatik aldatuko» argitu du. Asteburu ederrenak zaletasunetan ibiltzeko bide ematen diotenak dira Oteizarentzat: «mendian barna ibili, kotxeari konponketak egin eta familia edo lagunekin egoteko aukera ematen dutenak». Areago, «ingurukoak ongi daudela ikustearekin» nahikoa du zoriontsu izateko.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio onean salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

BERA. Legia, 19-1.C pisua salgai. 87 m², igogailuarekin eta trastelekuarekin. Berritua. 3 logela, armairu enpotratuak, bainugela, komuna, sukaldea eta jangela. ☎ 636 674116.

ERRENTAN EMAN

IGANTZIKO BENTAK. 90m²ko atikoa errentan emateko. Baratzia egiteko aukerarekin eta aparkatzeko lekua erekin. Irailetik aurrera. ☎ 617 347528.

LESAKA. Pisua errentan emateko. Bi irakaslerentzako. Irailetik ekainera. ☎ 948 637862 / 678 855056.

LESAKA. Bifamiliarra salgai. Bortz logela, hiru komun, sukalde eta egongela haundiak, garaje haundia eta lorategia. Prezio negoziagarria. ☎ 618 188300.

ERRENTAN HARTU

HENDAIA. Eskualdeko bikote batek Hendaian etxebizitza errentan hartu nahi du, epe luzerako. ☎ 622 831225/ 670 238139.

Jubilatuena bikote batek lur pixka bat duen pisua edo etxea errentan hartu nahi du. ☎ 692 609856.

ETXE KONPARTITUAK

BERA. Beran bizi den neska bat bertze neska edota nesken bila pisu bat konpartitzeko. ☎ 658 998586.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMAN

LESAKA. Iturrizubiko plazako 9. eta 10. zenbakian, ile-apaindegi bezala egokitua dagoen 70 m²ko lokala errentan emateko. ☎ 661 081273 / 948 637703.

LANA

ESKAITZAK

ETXALAR Hotelean ostaturako eta jatetxerako zerbitzari bana behar dituzte udan aritzeko. ☎ 948 635000.

LESAKA. Batzokian, lanean aritzeko norbait behar dute: sukaldean, ostatuan... aritzeko. ☎ 695 669831.

ARRAIOZ. Bi monitore euskaldun behar dituzte, uztaileen 16tik 20ra ludotekan lan egiteko. Ahal bada, irakaskuntzako edo gisako goi mailako ikasketak egiten ari dena. Aurreakari penalen ziurtagiria aurkeztea nahitaezkoa izanzen da. ☎ 646 483706. txuritabeltz@gmail.com.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Ile-apaindegi batean **laguntzailea** behar dute. ☎ 636 827980.

URDAZUBI. La Koska jatetxean frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar dute egunero lan egiteko. ☎ 948 599042.

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen esperientzia handiko emakumea eskualdean lan bila. Orduka, kanpo edo interna moduan edo asteburuetan lan egiteko prest. Bederatzi urteko esperientzia zaintzaile moduan. ☎ 948 580537 / 644 808025.

Gizonezkoa edozein lanetan orduka aritzeko prest: lorazaintzan, etxeen zaintzan, banatzaile... edozein lanetan ariko litzateke. Gida-baimenarekin. ☎ 628 842038.

Emakumea lan bila zonaldean: adinekoak interna edo orduka zaintzeko,

haurren zainketarako edota garbiketa lanetarako prest. Esperientzia adinekoak eta haurrak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ 635 296717.

Emakumea lan bila, adinekoak zaintzeko interna edo orduka. Urtetako esperientzia adinekoak zaintzen. ☎ 630 274738.

Emakumea lan bila, adinekoak zaintzeko interna edo orduka, haurrak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. ☎ 644 810688.

Adinekoak (interna edo orduka) edota haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetan. Lan horietan esperientziaduna. ☎ 664 149530.

Zonaldean adinekoak edota haurrak orduko zaintzeko lan bila. ☎ 622 015725.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,20/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 48 €

Zerri gizona 1,212 €

Zerramak 0,550€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (ekainaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

Neska gaztea udan haurrak zaintzeko lan bila. ☎ 671 780645 / 677 099599.

Adinekoak eta haurrak zaintzen, garbiketan, saltzaile edota zerbitzari bezala aritzeko prest dagoen neska lan bila. Lanean hasteko eta ordutegi aldetik libre dagoena. ☎ 658 998586.

Neska arduratsua lan egiteko gogoarekin: haurrekin esperientziaduna haurrak zaintzeko prest, fabrikaren batean edo beste edozertan... ☎ 687 222320.

ZERBITZUAK

DENETARIK

Esperientzia handia duen ardimoztaile lanerako prest. Artalde txikiak eta handiak onartzen ditu. ☎ 680 630811.

ITUREN. Lorategiak zaindu eta kimaketa lanak egiten ditut. ☎ 650 859158 (Juan).

MOTORRAK

SALGAI



Keeway Silverblade **motorra** salgai, 125 CC. 2014ko abuztuan matrikulatua. Beti garajea egondua da eta ongi zaindua. 5.400 km. Prezioa: 1.500 euro. ☎ 653 021320.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Hiru hilabeteko **txakurkumea** oparitzeko. Leongo mastina eta Collie arteko nahasketa. ☎ 617 254206.

Txakurkumeak oparitzeko: Border Collie mestizoak, ama eta amaren aita ardiekin lanean. ☎ 622 774110.

Hiru **katakume** oparitzeko. Jaten hasiak dira; guraso ehizariak (saguak,



744 484 361

ttipi-ttapa



sataginak, satorrak...), ☎ 652 750817 / 948 615005.


SALGAI

Lau urteko **zezen** limusina salgai, kartaduna. Bi **behi mestizo** ere salgai. ☎ 943 683060.

DENETARIK

BERTZELAKOAK

LESAKA. Eguzki elkarte gastronomikoa bazkide izan nahi duen talde edo lagun kuadrilla baten bila dabil. ☎ 627 253840.



SALEROSKETAK

Hiru balkoi osorik salgai, bi ate-koak, haritz egurrezkoak. 1,05 (zabalera) x 2,08 (altuera), markorik

gabe. Climalit kristal bikoitzekoak. Prezio negoziagarria. ☎ 656 710411.

ZUK

ttipi-ttapa

Zuk TTIPI-TTAPARI 50€ ematen badizkizu

LAGUNDU

ZURI

mecna

MECNAK zuri 40€ bueltatuko dizkizu

AURREZTU

Bagoaz, baguzi, bagazi

ttipi-ttapa haziz!

ttipi-ttapa

Informazioa lortu nahi baduzue deitu
948 635 458 telefono zenbakira
edo gurekin harremanetan jarri
bagoaz@ttipi.eus
posta elektronikoa

2. eskuko bizikletak

800€

400€

700€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probextu aukerak!

Ariztela DEKORAZIO TAILERRA %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan Landa Industrialdea-Suizpi, 3 LEITZA T. 948 61 06 11	edr gunea %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTIMEDERM markan ezik Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	ETXE TRESNAK S.L. %10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08	FISIOETXEA Ane Egozabal Ullata Fisioterapeuta %10 DESKONTUA hamar saloko bonoan Uharte Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30	Garbi dregeria - lurrintegia %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73
gastelu scl iturgintza %15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86	MERNANDORENA %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55	KAPRITXO %5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48	KU %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Uharte Gotzaia, 1- behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20	OGI BERRI Leitza Kafetegi Okindegia %5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74
LEITZAHIROLAK %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76	MAIMUR %10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	Olaia Bazar %10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37	ttipi-ttapa %10 DESKONTUA esketetan Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58	Leitza Bakerrak %5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20

HERIOTZAK

- **Valentin Gamio Garbisu,**
Irritakoa, ekainaren 8an, 77 urte zituela.
- **Eustakio Bazterrika Elizalde,**
Iturengoa, ekainaren 9an, 84 urte zituela.
- **Maria Zelaieta Saldias,**
Oizkoa, ekainaren 13an, 90 urte zituela.
- **Julia Antunez Olivenza,**
Elizondokoa, ekainaren 13an, 80 urte zituela.
- **Jose Aizpurua Deskarga,**
Gartzaingoa, ekainaren 14an, 82 urte zituela.
- **Mamen Igoa Genua,**
Elizondokoa, ekainaren 16an, 67 urte zituela.
- **Paulina Ansorena Sagastibeltza,**
Aresokoa, ekainaren 18an, 85 urte zituela.
- **Marcelina Telletxea Albistur,**
Zubietakoa, ekainaren 19an, 75 urte zituela.
- **Maria Jesus Sagastibeltza Saralegi,**
Leitzakoa, ekainaren 19an, 96 urte zituela.
- **Antonio Maisterrena Inda,**
Amaiurkoa, ekainaren 19an, 80 urte zituela.

IRACHE

tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo **info@ttipi.eus**

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

Ttipi-Ttapa: irakurriena Nafarroa garaiko mendialdean

OROIGARRIA

Maria ZELAIETA SALDIAS

Oizen, 2018ko ekainaren 13an, 90 urte zituela

Guztiok dugu samin handia
Maria despeditzean
Eta gehiago ama, amatz
Maitatua faltatzean
Nahiz eta malkoak ixuri orain
Gure artetik joatean
Irrifar batez egonen gara
Denok zutaz oroitzean.

ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

Eustakio BAZTERRIKA ELIZALDE

Iturenen, 2018ko ekainaren 9an, 84 urte zituela

Ekainaren bederatzi, egoten ziren gustora
80 urtetik gora aita ona izan zara,
goxo goxo joan zinen, eta hobe osaba
hartuz behar zen denbora zuri ikusiz gure atta,
emazterik hoberena, etortzen zigun gogora
seme, alaba, iloba mila esker guztiagatik,
zure kontuak entzuten, segi anaien ondora.

ZURE ILOBAK ETA FAMILIA



BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

BAZTAN:
ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK:
BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA:
DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

web: **funerariabaztanbidasoa.com**

Betiko taldea zu laguntzeka



KONTATU KONTUAK



Elkartasun Transpirenaika eskualdean barna. Hondarribiko Higuier lurmuturra eta Kataluniako Cap de Creus lotzen ari den Elkartasun Transpirenaika eskualdean barna igaro zen ekaineko hirugarren asteburuan. Ekainaren 16an, Hondarribia eta Bera artean ibili ziren; biharamunean, Bera eta Elizondo artean eta astelehenean, Elizondo eta Urkiaga artean. Duela sei urte sortutako ekimena da, Bartzelonako Fundació Formació i Treballen eskutik, gizarte inklusiva ikusarazteko, eta lau kontinentetako 800 gazte inguruk hartuko dute parte.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzazuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaguztu eta bidalguztu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitez Ttipi-Ttaparen bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

SORTZEAK

- **Inar Ariztoi Zahino**, Iturengoa, ekainaren 7an.

EZKONTZAK

- **Thomas Mauger** eta **Pauline Vidal**, Sarakoak, ekainaren 2an Saran.
- **Oskar Martinez Olabera** eta **Amagoia Mugika Errazkin**, Irungoa eta Donostiakoa, ekainaren 2an Lesakan.
- **David Esarte San Martin** eta **Jaione Elizalde Bereau**, Lizarrakoa eta Iturengoa, maiatzaren 25ean Donezteben.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

URTEBETETZEAK



Araia Bereau
Maritxalar gure etxeko printzesak ekainaren 21ean urtetxo bat bete du. Zorionak birramatxi, atabxi, amatxi eta izebaren partetik.



Berroetako Eider Migueltoarena
Arretxeak uztailaren 2an hiru urte beteko ditu. Aunitz urtez Berroeta eta Narbarteko familien eta Aiekoren partetik.



Ekainaren 29an Lekarozko **Julen Sarrateak** eta Irurritako **Uxue Bikondok** 4 eta 11 urte beteko dituzte. Arras ongi pasatu eguna eta bizkotxo goxo-goxo bat prestatu guk dastatzeko, prest egonen baikara. Muxu haundi bat familiaren partetik, eta bereziki Oinatz eta Aritzen partetik.




Ekainaren 28an **attak** urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik eta afari goxoa prestatu!



Beñat eta Mikel Portu Barinagarrementeria leitzarrek hamar urte beteko dituzte ekainaren 29an. Zorionak eta hamar muxu haundi familia osoaren partetik, bereziki Lesaka, Leitza eta Manzanoseko lehengusuen partetik.



Leitzako **Lide Urkiola Mariezkurrenak** 4 urte bete ditu ekainaren 19an. Zorionak eta txokolatzeko muxu haundi bat June eta Izargiren partetik!



Antton Iparragirre Iturzaetarak urteak beteko ditu uztailaren 2an. Aunitz urtez eta muxu haundi-haundi bat etxeko guzien partetik!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez Ttipi-Ttaparen bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia.
- (4) erran.eus bitartez.


PLAZAN BAZAN



UDABERRIKO PIKNIKA

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

Ai, enel
Hau da
desastreal
Baina lasai,
piknika
bukatutakoan
den-dena
bilduko
dute-eta.



Zenbat animalia daude guztira?
Zomorroak ere kontuan hartu.

Bila itzazu
elementu
hauek:

Mozoloa



Tiragoma



Automobila



Sardexka



Zapia

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>




Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

IZARRAK

Zenbat punta
ditu izar
ugarienak?
Ugarienak
diren horiek
elkarri lotu
eta irudi polit
bat aterako
zaizu






SUMENDIA

Ai amal Sumendia lehertu da!
Zein bide jarraitzen du labak, tximiniatik gora ateratzeko?

LANDARE ENGAINARIA

Begira iezaiozu landare honi. Bonsai eder eta apaina dirudi, ezta? Baina, erne! Landare karniboroa da, eta gainera, ikaragarria. Ahoa zabaltzen duen bakoitzean zomorroren bat jaten du... Non ote duen ahoa? Hain zuzen, hortxe goian, hosto txikitxo horien gainean. Mareraztuko al diozu zuk?




BEGI ZOROA

Zure ustez, zuzenak al dira marra hauek?

HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu mendiok garaienaren arabera. Idatzi bakoitzari dagokion tokia, beheko borobiletan.



Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTAPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTAPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttapi.eus | erran.eus

www.ttapitxartela.info

712

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 tiket

Aitor Plaza Puertolas | LESAKA

Astizko lezeak - 2 sarrera

Juan Pedro Andueza Oskoz | DONEZTEBE

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Tomas Iturregi Dagerre | IRURITA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Elena Reteigi Iturbide | IGANTZI

Buatxabal - Kamiseta bat

Manttoni Ballarena Iturburu | ERRATZU

La Rhune - 2 sarrera

Fernando Irazoki Ezkurdia | LEITZA

Wow Park - 2 sarrera

Gema Sarratea Arozarena | URDAZUBI

Baga-Biga - CD bat

Loli Gorria Gainza | METAUTEN

Baga-Biga - CD bat

Ainara Abete Goñi | ELIZONDO

2 sarrera



IRRISARRI LAND

www.irisarriland.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEA

www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA



Wow park
Votre Parc Aventure

2 sarrera

WOW PARK

<http://wowpark.fr>

LI BU RU AK

• Ixon

• Munstro bat edukiontzian



elkar

www.elkar.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.erein.eus



www.rhune.com